

ARRASATE

PRESS

Arrasate 1989ko Ekainak 16 27 zenbakia

Udalaren laguntzarekin eta AEDren ardurapean



Haurrengan oso hedatuta dago txirrindularitza.

Gero eta zikloturista gehiago errepideetan

Azken urteotan norberaren gorputza zaintzera bultzatzen gaituzten alde guztietatik. Gorputza zaindu behar horretan ohizko kirolak indarberitu egin dira eta beste ugari gure artean hedatu.

Horrela azkenaldi honetan bizikleta zaletuak gero eta gehiago dira, baina zaletu hauen artean badaude desberdintasunak.

Zikloturistak ditugu, kirol hau egiten aritzen diren batzuk, berauen be-reiztasunik nabariena talde handitan txangoak egitea da, eta horrez gain Arrasatekoen artean behintzat gaztetxoak ez izatea da ezaugarri nabarmen.

(16. or.)

ORAIN ETA HEMEN

HAUTESKUNDEAK

Arrasateko behin behineko emaitzak, hauei buruzko analisisa eta gertatutako albisteak

(10. eta 11. or.)

Gizabide eta Udala: akordioa

Sinatu da Gizabide Fundazioa eta Udalaren arteko akordioa. Honen arabera, Gizabidek Iturripeko instalazioak Udalari, erabilera publikoko kirol-ekipamenduak ezar ditzan, lagatzen dizkio.

(13. or.)

ELKARRIZKETA

Eukeni Olabarrieta

Mediku honek "Plan Mondragon"en berri eman digu.

(17. or.)

PODIUMA

Fernando Zufiria

Arrasateko Atletismo Taldekoak marka bikainak lortzen ari dira. Hau dela eta, taldeko entrenatzailea den Fernando Zufiriarengana hurbildu gara.

(19. or.)

KLINIKA DENTALA

DOHANEKO AURREKONTUA

- *ODONTOLOGIA OROKORRA
- *PROTESI FINKOA
- *PROTESI MUGIKORRA
- *HAUR ETA HELDUENTZAKO ORTODONTZIA

Iturriotz kalea, 7 bis-behea. Tfnoa: 79 73 88 ARRASATE

BEHARREZKO TELEFONOAK

Eritetxeak:

Arrasateko Eskualde-Ospitalea	795300
Igualatorioa	790500
Santa Agedako Ospitalea	
(gizonak)	793900
(emakumeak)	794411
Buru osasunerako zentrua	799011

Gurutze gorria:

Bergara	765576
---------------	--------

DYA

Antzuola	766291
----------------	--------

Anbulatorioak

Arrasate	791357
.....	799722
Oñati	780852
Eskoriatza	798896
Aretxabaleta	797458
Aramaio	(945) 455116

Anbulantziak:

Gipuzkoako ambulanziaz	458744
------------------------------	--------

Udaltzaingoa:

Oñati	780411
Bergara	761469
Arrasate	791439
Aretxabaleta	791052
Eskoriatza	790322

Ertzantza:

Arrasate	797199
----------------	--------

Suhiltzaileak:

Udal taldea	790900
Udal taldeko suhiltzaile	
burua	792072
Zubillagako Eskualde-Parkea	782800

Matxurak:

Urak (udal zerbitzua)	790900
Elektrizitatea (Iberduero)	790581

Garraioak:

Taxiak	791222
P.E.S.A.	791419

Hirugarren adinarentzako zentruak:

Iturbide Egoitza	797211
Abaroa jubilatuen egoitza	798157

Kontsumitzailearentzako informazioa:

Deba Garaiko Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkarte	798777
--	--------

16 OSTIRALA

- **Zinea:** Alai: "Harry el sucio en la lista negra".
- Novedades (Bergara): "Los búfalos de Durham", 10,30etan.
- **Ziklismoa:** Biterin, 1,30etan, Bicicleta Eibarresa Itzuliaren Arras.-Elgeta etaparen irteera.
- **Antzerkia:** Bergarako Pol Polen, 8ean, Maskaradaren "Kontrabajo".
- **Antzekia:** Zaldibarren (euria izanez gero, Kiroldegian), 10etan Pantarhey-Oxidoren "Aquellos polvos".
- **Goardiako farmazia:** Morales, Iturriotz.

17 LARUNBATA

- **Zinea:** Alai: "Harry el sucio..."
- Novedades: "Bat-21", 5,7,30, 10,30.
- **Halterofilia txapelketa:** Kiroldegian, 11etan.
- **Ziklismoa:** 4etan, neska mutilen lasterketak.
- **Umeen tanborrada:** 7etan.
- **Rock jaialdia:** 10,30etan Kiroldegian: La Polla Records, Potato, Tahures Zurdos (Koadrilen Batzordeak antolatuta).
- **Kontzertua:** Eskoriatzako San Pedro Parrokian, 9etan: Gorosarri Abesbatza, Gasteizko Txistularien Eskola eta Metal-Taldea.
- **Goardiako farmazia:** Ruiz Torre, Fererías.

18 IGANDEA

- **Zinea:** Alai: "Las aventuras del baron Munchausen"
- Novedades: "Los búfalos de Durham", 5, 7,30, 10,15.
- **Pintura lehiaketa:** Toki agerian, 9etan.

- **Makallau lehiaketa:** Sebero Altube, 10,30etan.
- **Kontzertua:** Amayan, 12etan, Arrasate Musikaleko ikasturte amaieraren kontzertua eta balleta.
- **Kalejira eta dantzak:** kaleetan zehar, 12etatik aurrera.
- **Dantza emanaldia:** Biterin, 5etan, "Haur Dantzarien Eguna"ren talde guztien aktuazioa.
- **Dantzaldia:** 7,30etan, "Eguzki".
- **Goardiako farmazia:** Español, Iturriotz.

19 ASTELEHENA

- **Zinea:** Alai: "Las aventuras del barón..."
- Novedades: "Los búfalos..." 7,30.
- **Goardiako farmazia:** Corcuera, Elcano.

20 ASTEARTEA

- **Zinea:** Alai: "Las aventuras del barón..."
- **Hitzaldi-zikloa:** abentura: Monterron, 7etan, "Marruecos bizikletan", X. Guinea.
- **Goardiako farmazia:** Irizar, Erguin.

21 ASTEAZKENA

- **Goardiako farmazia:** Amezua, Santamaina.

22 OSTEGUNA

- **Liburuen aurkezpena:** Monterronen, 7etan, Arrasate-88 eta J. Zaitegi. lehiaketako sarien argitalpenaren aurkezpena eta Joxemari V.de Mendizabalaren hitzaldia
- **Zinea:** 8,30etan, Amayan, "Tu novia está loca".
- **Goardiako farmazia:** A.Ruiz, Maalako Errabala.

ERAKUSKETAK

- **Kartelak:** San Juan kartel lehiaketakoak, hilaren 18 arte.
- **Marrazkiak:** Benito Zumalderen 30 marrazki, karbontzilo eta plumilaz, Arrasateko paisajeak. Abaroan, hilaren 25 arte.
- **Pintura:** VIII. toki ageriko pintura lehiaketaren erakusketa. Monterronen, hilaren 18 - 25.

LEHIAKETAK

- **Argazkia:** AEDk antolatuta, gaia: Arrasateko jaiak. 30 . 40 zm. 6 argazki. Sariak: 30.000, 30.000, 15.000. Epea: Azaraoaren larte.

IKASTAROAK

- **INEM-Bastida:** aplikamendu informatiko-administratiboak.
- **Nautika Kanpamendua:** Getarian. Uztaila eta Abuztuaren, 15 - 17 urte koentzat. Informazioa: Gazteria Batzordea.

ARRASATE PRESS

ASTEKARIA

Argitaratzailea:

Arrasate Press taldea (AED)
Zeharkale Estalia, 1-1. B
20500-ARRASATE -TF.79 71 64

Laguntzailea: Arrasateko Udala

Zuzendaria: Joxe Aranzabal

Erredakzioa: Juan Luis Azkarate
Bego Zubia

Publizitatea: Amaia Garro

Maketazioa: Goio Arana

Erredakzio-kontseilua: Jose Felix
Diaz de Tuesta, Harry Zاراia, Iñaki
Mendiguren

Kolaboratzaileak: Josemari Velez de
Mendizabal, Mikel Irizar, Karmele
Zuazubiskar, Patxi Montero,
Juan Martin Elexpuru, Mikel
Arregi, Eukeni Olabarrieta, Arantxa
Lizaso, Gerardo Markuleta,
Estepan Plazaola, Jesus Mari Garai,
Juanito Leibar, Jerardo Elortza, Mila
Galañena, Blanka Jauregi, Klarion
Taldea, Ioseba Vallés, Karmelo
Uribarren, Iñaki Aranburu.

Inprimategia: Gertu Koop. E.

Banaketa: Hainbat kuadrila

Harpidetzak: Zeharkale Estalia, 1-
1b. Tfnoa. 797164


Copyright: ARRASATE PRESS

Tirada: 3.800 ale

Lege-Gordailua: 1124/88

ISSN: 0214-4654

ARRASATE PRESSek ez du bere gain
hartzen aldizkarian adierazitako esanen
eta eritzien erantzunkizunik.



Behar ditugu aldizkariak, irratia, telebistak...

Gaurko lerro hauek idaztera noa-
larik, betiko gupil eroan ari naizela
somatu dut. Hala ere, aurrerantz
dagit. Bai; tituluak berak adierazten
duen bezala, gaurkoak ere gure hiz-
kuntza du ardatz; euskarak duen
(jasaten ari den) egoera txarra eta
nolabaiteko itxaropena izan dezan
praktikan ipin daitezkeen bitarte-
koak ditut gogoan, bizi dugun
gizarte honetan edukin egokia eta
emaitza berehalakoa eragin ahal
izateko.

Eta betiko gurpilean dihardudala
diodanean, gaurko lerro hauek ira-
kurtzen dituztenak "gutarrak"
direlako diot, hots, irakurle horiek ni
bezain kontzientziatuak daudela.
Beraz, esan dezakedana eurek
badakite. Zirkuluaren bestaldean
geratzen direnak ditugu kaxka-
gogorak eta horiek, zoritxarrez, ez
dira gaurko nire artikulua
mezuaz jabetuko.

Euskarak mundu zibilizatuareki-
ko lotura hobeagotu behar du, nahita
ez. Ez da txantxetako erronka bere
aurrean daukana eta ez da nolana-
hikoa euskaldun guztiok egin behar-
ko esfortzua. Hemen, Arrasaten,
gure kaleetatik zehar, oster bat
egin eta berehalaxe neurtzen dugu
gainean daukagun arazoa. Giro
erdalduna, zeharo erdalduna; gure
hizkuntzak duen presentzia
testimonialismo itzelean itota

aurkitzen da. Inguratzen gaituen
guztiak (tabernak, dendak,
lantegiak, elizak, Udaletxea,
eskolak, giza zerbitzuak, irratia,
egunkariak, telebistak, alderdi poli-
tikoak...) erdal kutsuz geruzatzen
gaituenean, ezer gutxi exigi diezaio-
kegu geure buruari, euskaldun iza-
tearen muina euskara denaz konben-
zituta gaudenok.

Komunikabedeetako mendetzat
ezagututakoa bere azkena ikusten ari
denean; aisitartearen konzeptua
maila ulertezineraino eramango
duen XXI.aren artean gaudenean;
gure hizkuntzaren apostua hil ala
bizikoa denean, euskararen hedape-
nerako erabil litezkeen bitarteko
guztiak martxan jarri beharko geni-
tuzke. Anaiarteko borroka antzuak
alde batera utzita, mamu faltsuak
gugandik uxatuz, euskaldunok bat
egin beharko genuke baltzuango
proiektuan: Gutembergen galaxiari,
hots, prentsa idatziari, bai (Arrasate
Press, "chapeau"); Marconiren gala-
xiari, hau da, irratia eta telebistari,
bai.

Arrasateko herriak eginkizunik
bitxien eta zailenak gauzatzeko
ahalmena erakutsi du askotan.
Orain, zintzoki pentsatu beharko
luke euskaldun izaten jarritzeak
beste esfortzu bat merezi ez ote
duen. Lehenbailehen.

Josemari Velez de Mendizabal

EDERRA

Iturriotz kalea, 12 Tfnoa: 79 96 25

KAJOI TABERNA

**erdiko kale 22
Tfnoa: 79 32 27**



gili gili

Iturriotz,9 Tfnoa:799457

**GIROA
AROTZAK**

Iturrioz 14, ARRASATE

HIRE

Liburu eta oparidenda
iturriotz, 4 - Tfnoa 79 14 84

ASA
ASEGURUAK

Zeu ezertara behartu gabe, aseguru mota guztien informazioa emango dizugu, zure beharretarako egokiena zein den adieraziz.

- * Etxeko Arrisku Orotarakoa
- * Auzo-Komunitateko Arrisku Orotarakoa
- * Saltokietako Arrisku Orotarakoa
- * Enpresa Txiki eta Erdi mailakoa
- * Pentsio-Fondoak
- * Jubilazio-Planak
- * Istripuak
- * Bizia
- * Automobilak
- * Erantzukizun Zibila
- ... etab

ZURE ESANETARA GAUZKAZU!!

Maalako Errabala, 33-Beheazpia
Tfnoa. 796900

ARRASATE

Aurrera bolie Kijotilandiatik

Aupa jendea: Herri baten askatasunerako mota guztietako burrukak beharrezkoak izango dituk, baina guztien artean gure euskara zaintzea eta lantzea ez duk azkenengoa. Bestelde, gu, Arrasateko seme-alabok, herritik kanpora aurkitzen garen guztiok, herri inguruko gertakizunez pizkat gehiago dakigu. Lan ona eta beharrezkoa egiten zabilzate eta jarrai bide horretatik. Sinbolikoki ez bada ere, hartu nere laguntza ere. Gorantziak jende jatorrei eta zuentzat besarkada haundia.

GORA EUSKADI INDEPENDIETE ETA SOZIALISTA!!!

*Jon Agirre, Arrasatear presoa
Herrera de la Mancha espetxetik*

Txirrindularitza eta trafikoa

Zuzendari jauna:

Martxoaren 15ean Euskadiko Txirrindularitza Federazioaren lehendakariak, Jaume Ugarte Arcek, dei egin zigun txirrindulari guztioi komunikatu baten bidez. Badirudi trafiko arduradunak, Diputazioa, Eusko Jaurlaritza eta laurak bildu zirela, beste gauzen artean, trafiko arazoak konpondu nahirik.

Benetan, jende asko gara Euskadin, zorionez, zaletasun hau dugunok eta noski, honek trafiko arazoak sortarazten ditu.

Ugarte jaunak idatzitakoa, honela labur dezaket:

Gure segurtasunerako eta istripurik gerta ez dadin, zikloturismoan, nahiz eta talde haundi bat izan, Bina-ka joatea komeni da, kotxe batek betetzen duen tokia betetzeko. Honela, ez gaituzte bazterrera bultzatuko, aurreratzeak zabalagoak izango dira eta ibilaldiak atsegina-koak.

Trafiko arduradunek eta han bildu zirenek guzti hau ulertzen zutela esan zuten eta zikloturistak parean joateagatik inoiz ez direla multatuak

izan gogora erazi zuten.

Pozik irakurri ditut Ugarte jaunaren aholkuak baina nik ez dakit txoferrek eta gidariek hau irakurtzeko aukera izan duzuen. Zuri, jauna, eta kotxez zabilzaten guztioi, dei egin nahi nizukeke pazientzia pizka bat eskatuz, txirrindulari gogaikarri garenekin bereziki.

Besterik gabe, nire agurra

Ganboa

Kaixo jendea:

Osane Lizarralde naiz. Hemen Suizan urte bat daramat. Lausanneko eskola politeknikoan ikasten bait nago. Hil honetan zuek bialdutako "Arrasate Press"eko ale bat jaso dut. Eskertu nahi dizuet detaile honegatik. Ilusio handia egin dit.

Zuen lana eta izan duzuen ideia hau fenomeno iruditzen zait eta aurrera jo dezazuen animatzen zaituztet.


Mila esker

Hurrengo batera arte

Osane.



Zer eritzi duzu hauteskunde-kanpainaz?



Patxi Andres
(langilea)

Nekagarria dela uste dut. Propaganda asko, guztiak guztien kontra, etab.



Mari Tere Azula
(etxekoandrea)

Ondo ikusten dut, bakoitzak nahi duenari eman diezaiola botoa. Dena dela, horrenbeste behar dagoenean, elkarren aurka aritzeko gero eta diru gehiago gastatzea, oso gaizki ikusten dut.



Ramon Santamaria
(langilea)

Ez dut eritzirik, ez alde baterako ez besterako. Orain denak onak dira, baina gero ikusi egin behar.



Josebe Bedia
(langilea)


Beno, ez dut telebista gehiegi ikusi, baina propaganda ugari egiten ari direla uste dut. Gutxi gora behera orain arte egin direnen antzekoa. Hemen Arrasaten H.B. egin da nagusi.

L E N I Z

AUTO ESKOLA

ARRASATE-Aldai, 9-Tlf. 79.46.04

ESKORRIATZA-Arana, 13-Tlf. 79.36.59



**ACADEMIA
BASTIDA**

1989ko Uztailaren 3tik 28ra

INFORMATIKA

*BASIC, COBOL,
PASCAL

*Sistema operatiboa

GESTIO-INFORMATIKA

*Datu-basea

*Orri-elektronikoa

*Testu-tratamendua

KONTABILITATEA

Plan orokorra

**Ikusentzunezko
MEKANOGRAFIA**

**Ikusentzunezko
TAKIGRAFIA**

ERREKUPERAZIOAK, euskaraz eta gaztelaniaz.

*OHO, IEE, BBB, LH, UBI

Ikastaroa
Uztailaren 3an hasiko da.

Ferrerias 47.

Tfnoak: 79 77 13 / 79 32 16

**PINTOREA
MOKETA JARTZAILEA
KOMUNITATEKO FATXADAK**

JULIO GONZALEZ

Santamarina 24, / ezk.Tfnoa: 79 89 79 ARRASATE

“PNVek motiboak ditu zera esateko, “geroan, ez dakigun gauza bakarria norekin egongo garen da, guk (gobernuan) jarraituko dugu eta”. Eta jarraitzeko oso adin ona duen lehendakaria dute. Gaur, larunbatean, Arantzak 48 urte beteko ditu. “Etxekoek” opari bat egingo diote, kontuak egin eta lehendakaritzan luzarorako jozen dute, gutxienez, beste 8 urte. Imajinatzen al duzue?”
(Charo Zarzalejos kazetariak DV egunkarian).

“Handiak diren Arrasateko auzo-elkarteetan, 50.000 termia baino gehiago duten urteko gas-kontsumoarekin, D3 tarifaren aplikazioa aukera lezakete, komunitateko kontagailu bakarraren instalazioaren bidez, kontsumoa denon artean ordainduz, eta geroago kontagailu indibidualak instalatu, bakoitzaren kontsumoaren ekitatezko banaketa egiteko. Horretarako elkarteak, entitate juridikoarekin eratu beharko lituzkete. Gainera, alternatiba hainek tubo bakarreko instalazioa egiteko aukera ematen du; horrela auzotarrek D1 eta D2 tarifek -gaur egun Naturgasek behartuta kontratatzen ari direnak- proposatzen duten kostuaren erdia kontsumituko lukete”.

(Manuel Añibarro, Arrasateko Udaleko teknikariak “Egin” en)

“Osakidetzaren arabera, “Auzo Lagun” enpresak egunero 4.000-50.000 bazkari egiten du. Momentuz, ez da ezagutzen 31n, osagarritzat entsaladilla zutena, zenbat zerbitzatu zuten, elikagai hau toxi-infekzioaren zuzeneko eragilea izan da eta.


Ondorioak jasan dituzten enpresak hauek dira, Pasaia-ko “Guria”, 15 langilerekin, Lasarteko “Jema S.A.”, 25 langilerekin, Legorretako “Eredu”, 28rekin eta Lasarteko “Micheln” 9rekin. Halaber, janariak prestatu zituen enpresaren 6 enplegatu intoxikatuta gertatu ziren.”

(DV egunkarian).

“Behin Atano III.ari galdetu nion, Mondragones-ek zer egingo lukeen pilota hauekin. Zer? Urumeako erbotera iritsiko litzateke”

(Pelay Orozko idazleak ETB 2an).

Ba al dute aurtengo San Juan jaiak iazkoekin gonbaratuz gero desberdintasunik? Zein erizpide izan duzue kontutan jaiak antolatzean?



Beno garbi ikusten zen, San Juanetan jendeak herri-rik alde egiten zuela eta jendearen partizipazio falta zegoela. Nolabait esateko, jaiak galtzen ari zirela. Beraz, guk jaiak antolatzen hasi garenean herriko sektore ugari inplikatu nahi izan dugu beraien antolakuntzan. Hala nola, SUDC, Lore Gazteak, Skaut taldea, AED, AUKEA, Kuadrilen komisia, etab. Beste jai batzuekin gonbaratuz gero, Santamasekin adibidez, garbi ikusten da jendearen partehartze zabala duten jaiak fruitu handiagoa ematen dutela. Beraz, hori egiten saiatu gara. Badaude arazo batzuk, nagusien tanborrada adibidez, jendeak ez duelako bertan parte hartu nahi eta aurrera ateratzeko arazo ugari dagoelako. Datorren urterako zerbait pentsatu beharko da, agian elkarteek konpromezu handiagoa hartzea, bai diru aldetik bai jendearen aldetik.

San Juanetan giza talde guztiek izango dute zerbait. Haurrek, beren tanborrada, haurren eguna, pailasoak, Kukubiltxo taldearen ekitaldia, etab. izango dute; pertsona nagusiei omenaldia eskainiko zaie; gazteei herri bazkaria, Rock jaialdiak, etab.

Aurten ez dugu zezenketarik izango. Iaz Tertulia taurina Txapelek herriko hiru torerori omenaldia egiteko antolatu zuen. Baina aurten kuadrilek balorazioa egin eta oso ekitaldi gogorra zela ikusi dute. Bestalde, diru asko eskatzen duen ekitaldia dela kontutan izanik, tertulioak ez antolatzea pentsatu dute.

Jose Agustin Ibarluzea “Txispas”
Arrasateko Udaleko zinegotzia

FAGOR



TALDE INDUSTRIAL KOOPERATIBOA

GURE ESKUALDE ETA EUSKADIREN ZERBITZUAN

ELKARLANEAN ARITZEN DAKIEN AGERBIDEA


Arrasate

u
t
o
e
s
k
o
l
a

Klase
praktiko
eta
teorikoak

Olarte, 30
79 89 89

XVII.



udako
euskal
unibertsitatea

IRUÑEA: Uztailak 17 - 29

INFORMAZIOA ETA MATRIKULA:

Baiona: ZABAL LIBURUDENDA, Pannecau, 25; tf: 59254390
Bilbo: UEU, General Concha, 25-6. ; tf: 4317145
Donostia: ELHUYAR, Urbietta 7, 3.; tf: 429945
Gasteiz: AXULAR LIBURUDENDA, Arka 11; tf: 132506
Iruña: AUZOLAN LIBURUDENDA. S. Gregorio, 3; tf: 223614
 XALBADOR LIBURUDENDA, Comedias, 14; tf: 224167

Matrikula-epena: Ekainak 1-30

ARTEA ETA KOMUNIKAZIOA

ANTZERKILARITZA (Uzt. 17/28) Gorputz-prestakuntza / Ipuin-kondalaritza / Jolas dramatikoak / Inprobisaketa
MUSIKA (Uzt. 17/28) "Musika bizi" maisu-maistrentzako ikastaroa / Herri-kantak / "ISILUNE-KONPASA"
BERTSOLARITZA (Uzt. 17/28) Herri-literatura eta bertsolaritzaren sustraiak / Didaktika (Bertsolaritza irakaskuntzan)

GIZA ETA GIZARTE-ZIENTZIAK

EKONOMIA (Uzt. 17/21) Gai orokorrak / Emakumea eta Ekonomia
FILOSOFIA (Uzt. 17/21) Arrazoi eta Nahikundea
HISTORIA (Uzt. 24/28) Iraultza burgesaren aroa Mendebaldean / Euskal Herriko historiaurrea
KAZETARITZA (Uzt. 17/21) Manipulazio informatiboa / Kazetari euskaldunen bilera
PEDAGOGIA (Uzt. 17/21) Gorputzaren tratamendua eskolan
PSIKOLOGIA (Uzt. 24/28) Komunikazioa
SOZIOLOGIA (Uzt. 17/28) Hirigintza eta lurralde-antolakuntza (1) / Soziolinguistika: Herrietako Hizkuntz plangintzarako lehenetasunak eta baliabideak (2)
POLITIKA () Perestroika ekialdean, zelako eragina Mendebaldean?
ZUZENBIDEA (Uzt. 24/28) Kode Zibilaren itzulpena / Hirigintza / Gazteen enplegua arautzeko plana / Ingurugiroa Europako legerian / Estradizioa Europan /

HIZKUNTZALARITZA

GLOTODIDAKTIKA (Uztailak 17/28) Motibapena aztergai / Soziolinguistika klasikoa eta berria: estrategiak / Hizkuntzen didaktika helduen alorrean / ...
LINGUISTIKA (Uzt. 17/28) Fonologia / Praktikak /
ITZULPENGINTZA (Uzt. 17/21) Historia eta korranteak / Itzulpen literarioa / Itzulpen pragmatikoa / Esan osteko interpretaritza / Aldibereko interpretaritza / Itzulpena gaur Euskal Herrian

NEKAZARITZA

NEKAZARITZA (Uzt. 17/21) Nekazal politika / Laguntza-egitasmoak / Ikerkuntza / Bioteknologia / Nekazaritza eta ingurugiroa

NATUR ZIENTZIAK

MEDIKUNTZA (Uzt. 17/21) Yoga / Homeopatia / Akupuntura / Nutrizioa / Medikuntz arloko lexikografi mintegia
NATUR ZIENTZIAK (Uzt. 17/28) Ibaien ekologia / Zoologia (teoria eta praktikak) / Aralar aztergai / Biologia-gaiak /

ZIENTZIA ETA TEKNIKA

FISIKA (Uzt. 17/28) Ikerketa-zentruen eta unibertsitate-laborategien azalpena / Elektronika kurtsoa /
INFORMATIKA (Uzt. 17/21) Konputagailu bidezko analisi morfologiko eta sintaktikoa / Konputagailuz Lagunduriko Irakaskuntza /
KIMIKA (Uzt. 24/28) Material berriak: konpositeak etab. (24/25) / Euskal kimikari ikerlarien III. Biltzarra (Uzt. 28) /
LANEKO EUSKARA (Uzt. 17/28) Hiru azpisailetan banaturik: Zientzia eta teknika / Udal-administrazioa / Sanitate-arloa (24-28).



ARGAZKIZALEOK ADI!!

Arrasate 89 Lehiaketak: ARGAZKI LEHIAKETA

GAIA: ARRASATEKO JAIK

OINARRIAK: Zuri-beltzez edo kolorez.
Kartulina-soproteek derrigorrez 30 X 40 zm. izan beharko dute.
Argazki-paperaren neurria librea.
Gutxienez 6 argazki aurkeztu behar dira.

SARIAK: Argazki onenari: 30.000 Pta.
Multzo onenari: 30.000 Pta.
Akzesitat: 15.000 Pta.

Diptikoak eta informazio gehiago AED Elkartean edo 79 54 46 Tfnoan.

ANIMATU ETA PARTE HARTU!!

**“IOKIN ZAITEGI ITZULPEN
LABURREN II. SARIKETA”** ren eta
“ARRASATE 88” Lehiaketa
ezberdinetan saritutako lanez
osatutako bi liburuen **AURKEZPENA!**

Eguna: EKAINAK 22, OSTEAGUNA

Lekua: MONTEIRON, 7etan

*Bertan, Jose Mari V. de Mendizabal “ek
lokin Zaitegiren biografiaz”
hitzalditxo bat emango du.*



prentsaren begia

OSTIRALA, 9

- Correo:** "Arrasateko Udalak taberna-jangela ezarri nahi Musakolako industri poligono berrian"
Deia: "Jaietako aurrekontua hamabi milioi ingurukoa"
D.V.: "Santzio-espeditenteak eta errekerimenduak Herriko zenbait enpresa eta establezimenduri"
Egin: "Roneo-ko LEBek morronkeriaz eta enpresaren aliatu izateaz salatu ELA"

LARUNBATA, 10

- Correo:** "Baztertua dirudi Lehen Instanziako Epaitegia Arrasaten ezartzea"
Deia: "Zaharren Astea amaitu Iturbide Egoitzan"
D.V.: "Sei ikastetxe ezberdinetako 900 ikaslerekin egin zen "Plan Mondragon"eko eskol inkesta"
Egin: "Sanjuan hauetan, ez ateratzeko arriskuan helduen danborrada"

IGANDEA, 11

- Correo:** "Deseginak, Obenerreka eta Cordoba y Oro-ko garajeak berenganatu nahi zituzten bi auzo-elkarteak"
Egin: "Eragozpenak gasaren hornidurarako hodi berriak fatxadatan instalatzeko"

ASTEARTEA, 13

- Correo:** "Partaide-ezak arriskuan jartzen "sanjuanetako" ohizko danborrada"
Deia: "Bidaia eta abenturei buruzko hitzaldi-zikloa hasi"
DV: "Urrezko hiru domina eta brontzezko bat Gipuzkoako Atletismo-Txapelketan"
Egin: "Familiarren taldeak eta Gestorak, Jesus M^o Zabarteren isolamendua salatu"

ASTEAZKENA, 14

- Correo:** "Bilera Arrasaten errepide-sareaz eta trenbidearen etorkizunaz"
Deia: "Bihar, etaparen amaiera Eibarko Bizikleta-koentzat"
DV: "Helburu nagusia: Natugas-ek aplikatu dezala D-3 tarifa auzo-komunitateetan"
Egin: "Ferial-eko pilotaleku berriaren proiektua Uztailaren amaierarako aurkeztu beharko"

OSTEGUNA, 15

- Correo:** "Enpresa sustatzaileak uztailaren hasieran ekingo Ferial-eko lurazpiko garajeen eraikuntzari"
Deia: "Jokin Zaitegi Itzulpen Saria antolatu du AED-k"
DV: "Momentuz kaleetako hauteskunde-propaganda kentzeko asmorik ez"
Egin: "Guztira 28 kuadrilak parte hartuko San Juanetan"
Gaur E.: "Uztailerako, Arrasateko Ferial-eko pilotaleku berriaren proiektua enkargatuko"

Usteak uste...

Behi, idi, zezen eta halakoek belarra irentsi ondoren, bigarren errepassoa eman behar izaten diote janariari, behar bezalako liseriketa izango badute. Bigarren murtzikaldi horri *hausnarketa* deitzen zaio. Horregatik, aipatu animaliei hausnartzaileak deitzen diegu.

Gizakiok kategoria horretan sartzen ez garen arren, zenbait momentutan, eta gure osasunaren defentsan edo, haien mekanismoak geureganatu ohi ditugu. Hauteskunde kanpainen biharamonetan esaterako. Hogeiguneko edo, sekulako tripakada eman ondoren; mitinak, kartelak, banderatoak, irribarreak, publizitatea, erreportaiak eta ohizko abarra, guzti hori norberak ahal duen moduan liseri dezan *hausnarketa eguna* erregalatzeko digute. Jeneralean kanpainaren biharamona eta bozketa egunaren bezpera izaten da.

Egun horretan, teoriarik behintzat, ez daiteke publizitate politikorik egin. Zer egiten da orduan? Hausnartu. Hori zer den? Hiztegiak dioenez, "*zerbait, pentsa eta pentsa, gogoan erabili eta astiro aztertu*". Ez dirudi, ordea, lanegun bakarrak. Halako arazo inportanteak hain astiro eta soseguz hausnartzeko ematen duenik, ze deskuidatu orduko bozketa eguna gainean duzu eta.

Esanak esan eta pentsatuak pentsatu, etorri behar zena etorri zaigu. Emaizok hementxe ditugu, orri hauetan bertan. Orain ondorioak ateratzeko garaia da.

Bat ateratzekotan, hauxe: azkenik Europan egon arren eta Legebiltzar berbera hautatu behar izan, beste behin zoritxarrez, Ipar eta Hegoaldeko euskaldunok ezin izan dugu egun berean botoa eman. Oraindik ere espagnolitoak.

Joxe Aranzabal


PUB HAIZEA



PEÑACOB
Auto-Eskola
 Zarugalde, 46
 Tfnoa: 79 29 93
 79 14 01
ARRASATE

Eurohauteskundeak

Arrasaten ostegunean, Europarako Legebiltzarreko hauteskundeak normaltasun osoz burutu zirela esan behar, ez zen inolako istripu edo gertakizun larririk suertatu eta lasaitasuna izan zen herrian bizi izan genuen giroa. Arrasatearrek goizeko lehen orduak eta arratseko azkenak izan zituzten gogokoen botoa emateko. Hala ere, horrelako egunetan alde guztietan gertatzen den bezala gure herrian ere suertatu ziren bitxikeria batzu.



Erguin auzoko hauteslekuan botoemale batzuk botoa lapurtuko zieten beldur edo, botoa alkondara auzoan eta karneta pratikan eraman zuten.

Egun honetan lapurrek ez zuten atsedenik hartu eta horrela Erguineko mahai batetan HBko botoak lapurtu zituzten eta Zigarrolako beste mahai batean EEkoak.

El Ferialen emakume batek ez zuela boturik berriro emango esan zuen mahaikoek bere izena apuntatu zutelako. *"Orain mundu guztia jakingo du nori eman diodan botua"*, aitortu zuen.

Kasualidadeak nonahi agertzen dira. San Andreseko mahai batean 1 zenbakia zuena lehena izan zen goizean botua ematerakoan.

Zigarrolako beste mahai batean berriz, neska bat nortasun agiria aurkitzen ez zuela eta, lau karnet desberdinekin hurbildu zen hauteslekura. Botoa emateke gelditzeko asmorik ez zuen, honako hau esan zuelarik *"Bandresek nortasun agiri-rik gabe eman baldin badu botoa, niri lau karnetekin utziko didate botoa ematen ez?"*

Gau honetan osteratxoa eman genuen herriko alderdi desberdinetako egoitzetatik zehar. Ezin esan baikortasuna zenik nagusi, egun honetan alde guztietan aurpegi nahiko luzeak aurkitu bait genituen. Dena dela, HBkoak izan ziren jende gehien bildu zutenak eta berauek izan ziren azkarrenak herriko emaitzak jasotzen.

HAUTESKUNDEAK ARRASATEN

	Autonomikoak 84	Legislatiboak 86	Udal Hautesk. 87	Europ. Hautes. 87	Europ. Hautes. 89
Zentsua	19.255	19.938	19.828	19.828	18.635
Emandako botoak	13.642	12.967	13.576	12.176	11.414
Abstentzioa	%29,16	%34,9	%31,5	% 29,5	% 38,75
EAJ	5.508	3.930	2.437	2.027 (% 14,9)	1.875 (% 15,6)
HB	2.569	3.113	3.373	3.391 (% 25,7)	3.219 (% 26,8)
EA			2.897	2.710 (% 19,8)	1.991 (% 16,6)
EE	929	1.032	1.342	1.169 (% 8,9)	978 (% 8,1)
PSOE	3.431	3.229	3.164	2.879 (% 21,4)	2.468 (% 20,5)
AP, PP, CP	709	680	—	—	347
Beste batzuk	386	773	363	—	536

La Polla Records

Tahures Zurdos
Potato

LA POLLA RECORDS



Arrasateko Kiroldegian
Larunbata 17an 10etan
Antolatzailea: Jai Batzordea

KABINETE
MEDIKOA

Medikuntza
Digestibidea
Endoskopia
Ekografia
Analiak

Ferrerias, 1.
Tfnoa: 79 15 08

■ Kooperatibak

Lan Sailaren agindu baten arabera, langileek, botua emateko lau ordu libre ordainduta dute. Kooperatibetako bazkideek, ordea, lanegun normala izan zuten 15ean. Kooperatiben Barne-Arautegian hauteskunde egunetan honelako erabakiak hartzeko Kontseilu Nagusiaren ahalmena ikusten da; eta, oraingo honetan, Kontseiluak bazkideentzat lanegun normala izan zedin erabaki zuen.

■ Botua emateko sarbideak

El Ferialeko hauteslekura heltzeko eskilara dexente igo beharra dago. Guri amona bat bere familiar batzuen laguntzaz igotzen ikustea tokatu zaigu.

■ Euskara kanpaina zehar

Euskal Herrian Euskarazek euskararen erabilpena aztertu du eurokanpaina honetan zehar. Deia, Egin, Gaur Express, DV eta Correo Español egunkarietan, Ekainaren 5etik 11a bitartean azaldutako datuak hauek dira: HBk %52 euskaraz, %45 erdaraz eta %3 bietan; EAK %10 euskaraz, %85 erdaraz eta %5 bietan; EAJk %10 euskaraz, %90 erdaraz eta %0 bietan; EEk %10 euskaraz, %60 erdaraz eta %30 bietan. Nafarroako "Navarra Hoy" eta "Diario de Navarra" egunkarietan: HBk %42,05 euskaraz; EAK %7,24 euskaraz; EAJk %5,53 euskaraz; EEk %18,13 euskaraz. PSOE, PP, CDS, UPN eta PCT alderdiek erdara hutsez egin dute propaganda guztia, Madrilgo Gobernuak bezala. Eusko Jaurlaritzak, ostera, %35,7 euskaraz eta %64,3 erdaraz.

Ondorio gisa. Hauteskunde hauek Estraburgoko Legebiltzarra aukeratzeko izan badira ere, ezin ukatu aztertzaile gehienek berehala ekin diotela botuaren bilakaeraren aztertzeari, bertako mapa politikoa nola eta zenbateraino aldatu den ikusteko. Estau mailan, adibidez, PSOEek uste baino gutxiago galdu badu, urtea amaitu baino lehen Madrilgo Parlamenturako hauteskundeak izan ditzakegu.

Baina Mondragoera itzuliz, zera azpimarratu behar. Abstentzioa ia hamar puntutan igo dela azken hauteskundeetatik. Ulergarria neurri batean, gogoratzen badugu 87an hiru hauteskunde egin zirela egun berean: Europarako, Udaletarako eta Batzar Orokorretarako. Gora egin duten alderdi bakarrak,



HB eta EAJ izan dira. Beste guztiek behera egin dute, EAK bereziki, hiru puntu pasatxo galduz. Dirudenez, PSOERI oraingoan zenbait botu kanpoko hainbat koalizio txikitara joan zaio.

Europa Arrasate balitz

Badakigu Udal Hauteskundeetan botoemaileak beste parametro batzuen arabera ematen duela botoa Udaletxea hurbilago bait dago Estraburgo baino. Baina eman dezagun hauteskunde hauek Arrasateko Udalbatza aukeratzeko izan direla. Mondragoen atzo emandako emaitzen arabera, horrela geldituko litzateke Arrasateko Udalbatza

ZINEGOTZIAK	87ko Ekaina	89ko Ekaina
HB	5	6
EA	5	4
PSOE	5	5
EAJ	4	4
EE	2	2



Ginekologi kontsulta

F. Cristobal doktorea
Jose M^a Gomez doktorea
A. Otalora doktorea
A. Estomba doktorea
M^a Jose Ruiz doktorea

Antisortzapen-miaketa, minbiziaren diaknostiko goiztiarra, bular patologia, zitologia, menopausia, haurdunaldiaren kontrola, antzutasuna, sexologia etab.

Ana Zubizarreta doktorea: Nutrizioa, argaltzea, zelulitisa...

Jose Luis Higuera: Kirurgia, basektomia...

Lagun-Aro, Asisa, Previa, Capisa, Diputazio eta partikularrak.

Eskatu ordua, astelehenetik ostiralera 9,30etatik 12,30etara telefono honetan: 79 20 18

Zerkaosteta 17, behea .

Arrasate



“Aquellos polvos”

Titulu sugerente hau du “Panta Rhey Oxido” taldeak ostiralean, hi-

laren 16an, eskeiniko digun obrak. Eguraldi ona eginez gero, Zaldibarraren izango da, bestela, Kiroldegian.

Irudizko espektakulua dugu hau. Bi pertsonaiek publikoarengan bikotearen harremani buruzko irudiak sortarazten dituzte. Bikote barruan sortzen den fartsa konbentzionaletan oinarrituta, hain zuzen. Lana publikoaren erreakzioak, argia, soinua eta mugimenduetan oinarritutako ikerketa dugu.

“Panta Rhey Oxido” Panta Rhey, lehen Hordago, eta Oxido taldeen bateratzetik sortutako taldea dugu. Fernando L. Herediaren zuzendaritzapean, bi aktorek hartzen dute parte muntaian, Emilio Fdez. de Pinedo eta Idoia Aiestaran. Obrak 275.000 pta.ko aurrekontua du.

Arte proiektua

Iazko sinposiumaren azken eskultura jarri berri denean, Udala Plazan, aste honetan bertan aurkeztu zaio Kultura Batzordeburuari, herriko 18 artistek prestatutako proiektua. Honek, aurrera eramatekotan, iaz arte urtero izan den Eskultura sinposiuma ordezkatuko luke. Egitasmo honetan arlo artistiko ugarik dute kabida: grabatua, pintura, argazkia, audiobisuala, zeramika eta debate tailerra.

Proiektu hau, sinposiumerako



Iazko sinposiumaren azken lana, Imanol Aranbururena

dagoen hiru milioiko kontusailari egokitua, zabala eta didaktikoa da oso.

Italiara

Gazteria Batzordeak Uztailaren 1etik 12ra Italiara (Cannes, Montecarlo, Roma, Siene, Florenzia, Venecia eta Niza) bidaiara antolatu du. Prezioa 16.900 pta.koa izango da eta Udalak bidaiari bakoitzeko kultur ekintzetarako (museoak ikusi etab.) 2.500eko subentzioa emango du.

Subentzioak

Orkatz taldeak, 88-89 ikasturterako egitaraua eta aurrirakosten diren diru-sarrerren berri eman ondoren, 360.000 pta.ko dirulaguntza jaso du Udaletik. AGARI, bestalde, 150.000 pta.ko dirulaguntzaz gain, Kiroldegia eta Amaia antzokiaren alokairuak “Gazteriarentzako Subentzioa” kontusailaren kontura izango da.

Dirubilketa

Datorren larunbat eta igandean, hilaren 17 eta 18an, San Juan Parrokiak dirubilketa berezia egingo du. Laguntzak Parrokian bertan eman daitezke, edo Parrokiak hiru Kutxetan duen kontuetan.

Jaiotzak

- Morales Vitoria *Josu eta Danel*, Ekainaren 2an.
- Doyage Loiti *Lezuri*, Ekainaren 4ean.
- Garcia Araujo *Alba*, Ekainaren 5ean.
- Bollon Martinez *Iban*, Ekainaren 6an.
- Martin Blanco *Amador*, Ekainaren 6an.
- Pernia Arallano *Nagore*, Ekainaren 9an.
- Pagaldai Zapata *Unai*, Ekainaren 10ean.
- Hidalgo Mesa *Tara*, Ekainaren 11an.

Eskontzak

- Cipriano Hernandez & Miren Lorea Lana, Ekainaren 10ean. Elizaz.



comercial
SUMOFIC, S.A.

ZERBITZU INFORMATIKOAK

**ENPRESA-GESTIO INTEGRATURAKO PROGRAMAK,
STANDARak ETA NEURRIRA.**

- DATU-BASEAK**
- OFIMATIKA**
- MANIENU-ZERBITZUA**
- *Ekipamendu eta programak**
- *Telemandua**

Isasi 21, Tfnoa: 70 11 67 / 70 28 66 Fax: 76 42 49. **EIBAR**



Kanpainak militanteei lan gogorra eskatzen die

Kanpaina irudietan

Bukatu da, oraingoz, kanpaina. Milaka slogan, esaldi xeble, mitin eta gezurren batzuk entzun ondoren, lasaitasuna itzuliko da berriro. Banderinak eta aurpegi irrifartsuen kartelak erretiratuko dituzte, edo beste- la, denboraren poderioz, usteldu e-

gingo dira, azkenean desagertu arte.

Azken astean Arrasaten ekintza politikoak, areto itxiak laga, eta kaleaz jabetu ziren. EAKoek, londresko bus bat eta guzti, Sebero Altubena bota zituzten euren mezuak. HBk, beti bezala, besteek baino askoz jende gehiago bildu zuen Mon-



Hauteskundeek umeengan ere badute eragina

terronen. Ondo prestatzen dituzten ekintza mota hauek: bazkaria, mitina, rock jaialdia... dena batera. EMK eta LKIKoek, ohizko show satirikoak ekarri zituzten. Beste alderdikoek, apalagoak Arrasaten, kotxe-karabana eta megafoniaren bidez egin zuten kanpaina azken astean.

Gizabidea eta Udalaren arteko akordioa sinatuta. Ostegunean Xabier Zubizarreta, Arrasateko alkateak eta Alfonso Gorroñogoitia, Gizabidea Fundazioaren lehendakariak, sinatu dute akordioa Iturripeko instalazioak Udalarik, erabilera publikoko kirol-ekipamenduak ezar ditzan bertan, lagatzeko. Guztira, 14.972 m² dira. Hauetatik, 8.255 m²ko lurzatia (erdikoa), Gizabidea 40 urterako lagatzen dio Udalarik; 4.110ko lurzatiaren (Torre Eguzki ondokoa) jabari osoa lagatzen dio Udalarik; eta 2.607m² (lorategien ondoan) 3 urterako lagatzen dio. Udalarik dagokio instalazioen mantenua, jabearekin kontsultatu beharko duelarik aldaketa egin aurretik. Alkatearen esanetan, "sinadura hau oso garrantzitsua da Kirol-instalazio berrien beharra dago, eta Kiroldegia Musakolan, eta Iturripe herriaren beste muturrean dagoenez, kirol-eskeintza ekilibratu egingo da".



comercial
SUMOFIC, S.A.

PROFESIONALAK GARA:

**IDAZKERA ELEKTRONIKO,
FOTOKOPIAGAILU,
TELEFAX,
etab.etan.
MANTENU-ZERBITZUA**

San Lorenzo A. 25 Tfnoak: 76 21 46, 76 59 03. 162 Postakutxa BERGARA

Euroizarrak

☆ Aurreko alean Arrasateko euro-hautagaiak aurkeztu genizkizuen. Bada, halabaina, Arrasatekin zerikusirik duen beste hautagai bat, eta oso ondo kokatua gainera: Marcelino Oreja. Zenbait urtez UCEMeko gerentea izana, fragatarren zerrendaburua da, eta itxura guztien arabera, ez du arazorik izango Estrasburgon aulkia irabazteko.

☆ Kanpainak aurrera egin duen neurrian, hasierako urrezko izarrei zerien patxadatik "Izarretako gerra"ra igaro gara. Aulestiaren zeharkako salaketak PSOEri, EA eta EAJren arteko mokokadak, eta Arantzaz beraren berba gogorak bere gobernukideen kontra, goritu egin dute kanpainaren giroa, komunikabideetan batipat, herri mailan igarri ere ez bait da egiten.

☆ Herritik herrira alde dexente egon daiteke alderdi beraren kanpaina antolatzeke moduan. Bergaran eta Arrasaten, adibidez, HBren kanpaina desberdina izan da. Bergaran Txillardegia eta Jone Goirizelaiaren mitin-hitzaldia eratu zuten bitartean, Mondragoekoa askoz ere gauza ireki eta alaiagoa izan zen: txikiteoa, bazkaria Monterroneko berdeguneetan, mitina leku berean... Berba batez esateko, jaigiroa!

☆ Arrasate oso garrantzitsua izango da, hiru hautagai izango ditu hauteskunde hauetarako, etabar, baina kanpaina honetan, Bandres, Garaiakoetxea eta Montero ikusteko gogoarekin gelditu gara. Gangoiti hiru ordu laurdenez izan zen Arrasaten propaganda banatzen. Argazkiak ez dira falta izan, ez horixe, baina benetazko pertsonaiak ikusi ahal izateko, hurrengo kanpaina arte itxaron behar. Ez omen da hain luzea izango, zurrumurruek diotenez, hurrengo kale kantoian dago eta.

T x a n d a k a

Koltzaren epaiketa: Zortzi urte eta gero hau!


Orain dela zortzi urte, 1981eko Maiazaren lehenengo egunean hil zen Madrileko "La Paz" ospitalean Jaime Vaquero Gaztea, gaixotasun ezezagun batek jota. Hasierako "Neumonia atipica" laster pozoinadura arrunt bihurtu zen. Historian zehar hainbeste aldiz bezala, merkatu librearen arauak okertu ziren eta aberasteko nahikari gehiegizkoaren eragin astuna herritarren gainean erori zen. Eta guzti hau, adimintrazioaren geldotasuna dela medio, noski.

Urte hauetan zehar, 700 izan dira hil eta 25.000 minduta suertatu direnak. Bestaldetik ikusita, osabideetan erabilitako baliabideak 2.600 milioi pezeta kostatu zaizkigu hiritar guztioi.

Urte hauetan zehar, 500.000 orri osatu dira sumario judizialaz, 1987ko Martxoaren 30ean hasi zen ahozko judizioa eta azkenean, joan zen astean, epaiketa argitara eman da. Espainiako justiziak ezagutu duen prozesurik luzeena bukatu da.

Urte hauetan zehar, jasotako 200 txosten teknikoak ez dira nahiko izan, bide batez olio enpresari batzuk haien biltegietatik koltza pozoitsua desagertarazi egin dutelako. Eta probarik gabe, zigorrik ez...

Eskandalu borobil honetan argi geratu dira Estatuko hiru botereen benetazko egoera eta joera. Alde batetik Gobernuak, bai lehenengo U.C.D. eta baita P.S.O.E.koak, nabari erakutsi digu nola babesten diren herri honetan kontsumitzaileen eskubideak, eta zergatik dabilzan jaun eta jabe iruzurtzaileak. Bigarrenez, Legebiltzarrak pentsatu



Mikel Larunbe*

beharko du kodigo penalarren gaurkotzeaz, osasun publikoaren kontrako lege hausteen zigorrak haundituz. Eta amaitzeko, zer esan gure artean ditugun epaileez? Nola ulertu 38 gaizkile hauei botatako zigor barregarriak? Ez dakit nik fiskalek eta akusazio partikularrek eskatu dituzten 70.000 urte famatuak gehiegi izango ziren ala ez, baina kopuruz kopuru, 700 hilketa zati 38 akusatu artean, ez zait beste munduko zigorrik iruditzen...

Epaileen iritziz, sumarioa azterterakoan oso garrantzi handiko arrazoi bat, hiltzeko borondate eza izan da, pozointzaileek ez zekitelako olioaren manipulazioa hilgarri bihur zitekeela. Dirudienez, ildo honetatik jarraituz, 700 hilketa hauek ez dute hiltzailerik.

Penagarria gertatzen ari den korapilo hau okertzeko, estatu berak ez du prozesu honetan parte hartu eta horregatik, kontra egin arte kaltetuek ez dute behar duten premiazko indemnitazio-ordainketa jasoko. Hiru edo lau urte gehiago itxaron beharko, beraz.

Horrela baldin badira gauzak justiziaren munduan, eta elkartasunaren hastapenaren izenean, gobernuak lege berezi bat eragin dezala lehen bait lehen, kaltetuen eta haien familiek merezi dituzten kopuruak kobratzeko.

Aburu hauek amaitzeko, bi galdera: babesturik sentitzen al gara kontsumitzaileok? Ez al gara sentitzen superbibiente edo geroko bizi hutsak?

(*) Nafarroako Ospital-Medikuntzaren Zuzendaria

ATOR



PEUGEOT TALBOT

INDAR DINAMIKOA

**P-405 DIESEL eta
TURBO-DIESEL
INTERCOOLER BERRIA**

Arrasate, Gipuzkoa Etorbidea z/g

Tfnoa: 79 94 11

Bergara, Torrekueta 2, Tfnoa: 76 23 75

Hemen daukazu, Eiffel Dorrean azpian, Arrasateko turista talde europear hau: fraka motzak, argazki- makina eta freskagarria eskuan, behar den moduan. Gazteria Batzordeak antolatuta, joan den hilean lau egun eman zuten Parisen. Gazteriakoak, datorren hilera-ko, beste txango bat egiteko asmotan dabilta.




Bidai ederra gazte hauena



Saridunak, pozik

Japoniatik euskaraz: Hideo Ishukiza japoniar-rrak ez du bat ere lotsarik izan alboan ikusten duzuen telegrama Ikasbidera euskaraz bidaltzeko. Testua ez da Axularren maila-koa, baina merezi du gure txaloa. Sayonara, Hideo!



Hona hemen Ishukiza/Ishukiza-ren telegrama

Baditugu "Fotozaha Sariketa"ren bigarren saridunak: Felisa Gallastegik VIGURI-ITT telebista ederra eskuratu du. Eta Miriam Leibar, Jone Etxebarria, Pili Ortueta eta Juanita Azkoagak walk-man bana. Ikusten denez, emakumezkoek dute atseginago gure lehia-keta, edo agian kasualitate hutsa, batek daki...

izen propioak

Aitziber Zumalde, 10, aurtengo haur-danborraden SDUCeko bande-radun gaztea. Aitziber San Frantzisko ikastolan OHoko 4. kurtsoa ari da ikasten.

Jose Mari Lopez, 54, enpresa-jendeari zuzendutako Informatika Akademia du zabaltzear, S. Andres auzoko Bañez doktorea kalean. Jose Mari arrasatearra da, Eskola Politeknikoan tailer eta teknologia elektrikoa irakatsi zituen eta aspaldi honetan Coprecin egiten du lan. Akademia, fisika amaitu berri duen semearekin batera jarri du.

Josu Zubizarreta, 8, San Juanetako haur-danborradaren jenerala. Josuk ere S. Frantzisko Xabier ikastolan dihardu, OHoko bigarren mailan.

Jesus Mari Zabarte, "Garratz", 43, Almeriako presondegitik Carabanchelera eraman zuten joan den astean. Madrilgo kartzelan isolatuta dago, ezelango koltxoi, manta edo bizarmakinarik gabe, Gestorek aditzera eman dutenez. ETako ekintzailea izatearen akuzaziopean, 200 urte inguruko kartzela-zigorra du gainean.

Estepan Plazaola, 27, Eusko Jaurilaritzaren ardurapean antolatzen den Urdirozeko (Nafarroan) udalekuaren koordinatzailea da. Udalako Estepan Eskola Politeknikoan ikasi ondoren, AEKn ari izan da hamar urtez. Larunbatean EGA irakasten du Bergarako UNEDn. Gasteizko IVAPen egiten du lan, non, aldi berean, itzulpengintzaren bigarren urtea ikasten ari bait da.

EPELDE
Argazki
denda
Iturriotz 24

LARRINGAN
auto gidarien eskola
KLASE TEORIKOA
IRAKASLEAREKIN
Garibai 3, 79 22 96 ARRASATE

BATZOKIA
jatetxea
Eguneroko menua
eta karta
Iturriotz 41, 79 70 41
Arrasate

Udara heltzean errepideak ziklistez beteta

Aspaldi honetan, bai komunikabideetatik eta bai erakundeetatik gorputza zaindu beharrekoa dela entzuten ari gara etengabe. Batzuk ederrago egoteko aitzakiaz eta beste batzuk osasuntsuago egotekoaz, kirolak bultzada handia izan du azken urteotan. Boom-a dei genezakeen honen barruan jendea kirol berri ugari hasi da egiten eta hauen barruan, zikloturismoa oso zabaldu da gure artean. Hitzak adierazten duen bezala kirol mota hau egiteko bizikleta beharrezkoa da, baina bala du aparteko berezitasunik?



Arrasateko Elkartek urtean behin haurrentzako ekitaldiak antolatzen ditu

Inguruak ezagutzeko bidea

Ezin esango dugu, bizikleta hartu eta hortik zehar ibiltzea gure artean gauza berria denik. Dena dela, 60. hamarkadan turismoa hedatu eta herrira zabaldu zenean, turismo-era hau ere hedatu zen. Berez zikloturismoa, garraiotzat bizikleta erabiltzaz egiten den turismoa dugu, baina gaur egun hitzak bere berezko zentzua galdu eta beste gauza oso desberdina adierazteko erabiltzen dugu, beti ere bizikleta munduarekin lotutakoa.

Zikloturismoa beraz, taldeka egiten den bizikleta txangoa dugu. Zikloturisten helburua bizikleta gainean kilometroak egitea da eta ez dute inolako txapelketa edo lehiaketatan parterik hartzen. Hau da, beren helburua kirola egitea baino ez da. Zikloturistak elkarteetan biltzen dira eta urtean zehar aurretiaz antolatutako egitaraua betetzen ahaleginduko dira. Elkarte bateko bazkide izatea ez da beharrezkoa izango

zikloturista izateko, baina elkarteko partaide izateak erraztasun eta abantaila batzuk eskainiko dizkio zikloturista zaleari.

Deba Garaiko zikloturista elkarte

Arrasaten, duela hamar urtetik hona Deba Garaiko Zikloturisten

elkartea dago kokatuta. Momentu honetan 100 bazkidek, gutxi gora behera, osatzen dute elkarte, denak gizonezkoak. Elkartearen historian emakume bakar bat izan da bazkide; emakumerik ez egote hau, ez da debeku baten ondorioa, inor hurbildu ez denaren ondorioa baino. Bazkide gehien adina 30 urtetik gorakoa da.

Elkarteko bazkide izateko ez da eskakizun berezirik bete behar. Elkartekoek bazkide guztiak federatzen dituzte eta bide batez seguroa atera, istripuren bat egotean txirridularia babesturik egon dadin.

Elkartekoek igandero egiten dituzte txangoak, Martxoan hasita Irailaren bukaera arte. Gainera txango hauek kontrolatu egiten dituzten, bazkideei banatzen zaien kartila baten bidez. Kartila hau irteera bakoitzean zigilatu egiten zaie txangoan parte hartzen duten guztiari. Era honetan tenporada amaitzean lau huts baino gutxiago egin duenari klub-ak saria emango dio bere erregularitateagatik.

Elkartekoek bi ibilbide antolatzen dituzte ibilaldiko, bata luzea, arituagoentzat eta bestea laburragoa. Denboraldi hasieran ibilaldiak 40 kilometro ingurukoak dira eta Ekaina edo Uztaila inguruan 120 kilometro edo gehiagokoak dira.

Urtean zenbait ekintza berezi

Arrasateko Zikloturista Elkar-teak urtean zehar zenbait ekintza antolatu ditu, bertako haurrek kirol hau praktikatu eta bide batez berau egitera zaletu daitezten. Berauek burutu ahal izateko herriko komertzio edo lantegiren baten laguntza izaten dute. Haurrek proba burutu ondoren sariak jasotzen dituzte, eta egun desberdin batez disfrutatzeko aukera ere izan dute.

Bestalde, Elkarteko bazkideek Gipuzkoan antolatzen diren zenbait

Deba Garaiko Zikloturista Elkartek 100 bazkide ditu, denak gizonezkoak eta gehienak 30 urtetik gorakoak

probatan ere parte hartzen dute. Horrela elkarte artean antolatzen diren probetara joango dira. Baina proba hauek beste edozein kirolean antolatzen diren probekin gonbaratuz gero, desberdintasun nabarmena aurkituko dugu. Proba hauetan ez da irabazlerik suertatzen eta berauetan parte hartu eta burutu duten guztiari saria banatuko zaie.

Aurten Arrasateko zikloturista batzuk Frantziako froga batera joango dira. "Turismoa egiteko beste era bat, baina era gogorra, hamabost ordu ematen bait dute bizikleta gainean." adierazi digu Arrasateko Elkarteak Zuzendaritzako partaide batek.

Lehia nahirik ez izate honek desberdintzen ditu zikloturistak beste txirindulariengandik. Arrasateko elkarteak adierazi digutenez, lehiaketetan parte hartzeraz txirindulari gazteak animatzen dira, baina beraiek jadanik gauza horietarako zahar samarrak dira.

Kirol arriskutsua

Gaur egun gure errepideetan bizikleta gainean aritzea arriskutsua suertatzen dela esan behar. Zikloturista Elkarteak era honetan hitz egin digute "tamalez, kirol arriskutsua dela esan behar dugu, gure artean ez da hildakorik suertatu baina beste elkarte batzuetan horrelako istripuak ere izan dituzte". Eta halaxe da, aurten Tolosako bi gazte zikloturismoa egiten ari zirela, kotxe batek harrapatuta hil bait ziren.

Istripu hauen zergatia azaltzerakoan, arrazoi ugari aurki genitzake, baina gehienetan kotxe gidarien axolagabekeriagatik gertatzen direla esan beharko dugu. Oso normala da errepideetan zenbait bizikletari aurkitzea, baina ez da hain normala kotxe gidariek beren abiadura murriztea. Horrez gain, errepideen



Txirindulari hauek astero egiten dute txangoa

"istripu hauek galerazteko oso egoiak lirateke bidegorriak. Hala ere,

egin behar dituzten".

Dena dela, istripuak galerazteko zerbait egin daiteke, eta horretara zuzendu dira trafikoko zuzendaritzak eta Gipuzkoako Zikloturista Federazioak hartu dituzten akordioak. Berauetan zikloturistei binaka joatea gomendatzen zitzairen. Era honetan kotxe batek duen zabalera betetzen dute errepidean, kotxe gidariek nahi eta nahiez frenatu beharra dute eta aurreratze orduan, beste kotxe bat aurreratzen dutenean bezalaxe jokatu beharko dute.

Errepideetan bizikleta gainean aritzea. arriskutsua suertatzen da. Gehienetan istripuak kotxe-gidarien axolagabekeriagatik suertatzen dira.

egoera ere aipatu beharko genuke, inguru hauetan bizikletentzako bidegorriak aurkitzea oso arraroa bait da. Arrasateko Zikloturista elkarteak partaide batek ondoko hau zihoen,

inguru honetan oso zail ikusten dugu berauek eraikitzea. Bailarak oso estuak dira, nahiko lan eman die bariantek, ia mendian zehar doa; beraz, pentsa ezazu bidegorriak non



URONDO elektrizitatea.

Nafarroako etorbidea, 11 Tfnoa: 79 78 15 ARRASATE

- * Elektrogaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak
- * Proiektuak

UDALA


Auto-eskola

**Minusbaliatuentzako
klase bereziak**

Otalora, 25 Tfnoa: 79 88 56

UDA 89 IKASTAROAK

ARRASATE
ARETXABALETA
BERGARA



UDAL EUSKALTEGIAK

NOIZ: Ekainaren 26tik
Uztailaren 21era arte

MAILA GUZTIAK
5 eskolordu egunero

MATRIKULALDIA:
Ekainaren 22ra arte


PREZIOA: 4. 800 pta.

ARRASATEKO UDAL EUSKALTEGIA
ARETXABALETAKO UDAL EUSKALTEGIA
BERGARAKO UDAL EUSKALTEGIA

79 70 77

79 21 68

76 44 53



GIPUZKOA

HERRI Irratia

Eukeni Olabarrieta, "Osasun-heziketan sinisten dut"

Plan Mondragon gure herrian orain dela hamar urtetik hona burutzen ari den ikerketa dugu. Ikerketa hau bihotzarekin zer ikusia duten eritasunak aztertzeko burutzen ari da. Beronen buru Eukeni Olabarrieta sendagilea dugu eta gaurko honetan berarekin egon nahi izan dugu. Gauza interesgarri ugari kontatu zizkigun Eukeni, baina hemen denak isladatzea ezinezkoa izango da lekurik ez dugu eta.

— Arrasate Press: Nola sortu zen Plan Mondragon eta zein helbururekin?

— **Eukeni:** Beno, Plan Mondragon duela hamar urte burutzen hasi ginen plana da. Arrasaten gaisotasun kardiobaskular edo bihotzodikoak, sortzetiko bihotzeko gaitzak, arteriosklerosia edota hipertentsioa zenbat pertsonak duten jakiteko. Gero ezetz ikusi bazen ere, Arrasaten jasotako emaitzak E.Hko emaitzen islada izango zirelakoan geunden. Emaitzak oso pozgarriak izan ziren, bihotzeko gaisotasuna zuten pertsonen kopurua nahiko urria zen eta.

— **Aipatu diguzuna baldin hazten helburua, nolatan iraun du horrenbeste urtetan planak?**

— Gure emaitzek interes berezia sortu zuten OMEkoengan (Osasunerako Mundu-Erakundea) eta hauek interbentzio-azterlana burutzea proposatu ziguten. Interbentzioa, arrisku faktore eta arrisku taldeengan burutuko zen.

Arterosklerosia esaterako, tabakoak, tentsio altuak eta kolesterol altuak sortzen

dute; beraz, gaisotasun honen aurkako interbentzio-planak faktore hauen aurkako borroka suposatuko luke.

— **Lehen Arrasateko emaitzak EHkoak isladatzea espero arren horrelakorik ez zela eman adierazi diguzu?**

— Bai, interbentzio-plana egitean, beste herri bat eduki behar da datuak gonbaratzeko eta batean egindako lanak eraginik duen ikusteko. Hau da, batean, gaisotasuna gutxitzen den eta bestean mantentzen den ikusteko. Arrazoi desberdinak zirela medio, Legazpi aukeratu zen bigarren herri bezala. Legazpiko

1.000 gizon heldu aztertu ziren, hau da arriskua duen populazioaren talde adierazgarria aztertu eta Legazpin gaisotasunaren eragina Arrasaten baino hiru aldiz handiagoa zela ikusi zen. Honen arrazoiak zeintzuk izan zitezkeen aztertu nahi izan zen, baina ez zen arrazoirik aurkitu.

Ondorioz, arrazoi zientifikoen-gatik zein arrazoi etikoengatik Arrasaten interbenitu eta Legazpin arazoa handiagoa izanik, zegoenetan ezin utz zitekeela pentsatu zen. Durangaldea aukeratu zen gonbaragune bezala eta beste bi herrietan lanean hasi ginen. Hango emaitzak Arrasatekoak baino handiagoak izan ziren, baina Legazpikoak baino baxuagoak.


— **Beraz, zer egin duzue planarekin segitzeko?**

— Beno, denetarik egin dugula esango dut. Hipertentsioa duten pertsona-taldeak hezteko programak martxan jarri ditugu, datorren

urtean odolean lipido trastornoak duten pertsonak hezteko lantaldeak jarriko ditugu martxan, etab.

— **Planean beti gaisotasuna duten pertsonekin lan egitea pentsatu da?**

— Puntu honetan nire eritzia, nirekin lan egiten duten pertsonen eritzitik zerbait aldendu egiten da. Hemen beti arrisku-taldeekin lan egiten da. Arrisku taldeak gizonezko helduei deitzen zaie. Gaisotasun hauek eraginda hiltzen den emakume kopurua askoz altuagoa da, baina emakumeengan menopausiak eragin berezia du, lehenago gaisotasunak ia ez die eragiten. Gizonezkoengan, ostera, tabakoak, gantzek etab. eragiten dute, beraz faktore



Eukeni Olabarrieta

hauengan lan egin daiteke, tabakoari utz diezaioten, edota grasa gutxiago jan dezaten.

Niretzat hau esatea oker ibiltzea da. Gai honen inguruan lan egiten horrenbeste urte eman ondoren, pertsona helduei beren ohiturak aldaraztea oso zaila dela konturatu naiz. Nire eritziz, haurrekin lan egin beharko litzateke. Haurrek adin batera heldu arte, ez dute erretzen, ez dute edaten, kirol ugari egiten dute. Erretzen, edaten, etab., egiten hasten badira, helduak imitatzen dituztela-ko da.

Badago hitz bat bizio guzti hauek oso ondo deskribatzen dituena. Ohitura autosuntziztailea. Munduan hiltzen den populazioaren %50a eritasun hauek jota hiltzen da. Hau dela eta ematen zaie izen hau.

— **Gaisotasun hauek ez al digute beldur handiegia sortzen?**

— Mediku batzuk osasun-heziketan sinisten dugu. Jendeari beren gaisotasuna ezagutzen eta ulertzen laguntzen baldin badiozu, sendatzen ere laguntzen diozu. Ez dauka zentzurik miloi ugari ospitale etab.etan gastatzea, ez dugunean pezetarik ere gastatzen prebentzioan. Normalean medikuntza prebentiboa kuratiboa baino askoz merkeago eta askoz ere arrakastatsuagoa da.

Dena dela, kontutan izan beharko litzateke gakoa moderazioa dela, erretzea edo edatea ez dira kaltegarriak moderazioz erre edo edanez gero.

"Medikuntza prebentiboa ohizkoa baino askoz merkeagoa eta askoz ere arrakastatsuagoa da"

kirolak



36 lagun izan ziren ibilbidean

Mendi astea bukatu

Bikaintzat eman daiteke jendearen partaidetza Besaidek antolatutako mendi astein. Eta hau zenbakiekin demostra daiteke: "Kirol medikuntza" hitzaldian, Ramon Garatek emana, 40 lagun bildu ziren; Mirian Garciaen "Yosemitetik Patagoniara" izenekoan, 110; "Azpeitiko espedizioa Annapurnara" filma ikusteko 150 joan ziren, eta Mountain bikeko ibilaldiak, 36 txirrindulari bildu zituen.

Ekitaldietan parte hartutako guztien artean zozketa bat egin da, honako zenbaki hauek saridunak urten dutelarik: 245. zenbakia duenak, Ola Ostek emandako mendiko bizikleta irabazi du. 180a duenak, mendiko bizikletaren osagarriak. 238, 292 eta 37 zenbakiek, Arrasate Kirolak-ek emandako 15.000 pta.ko txartela kirol materiala erosteko. Saridunek Besaidera jo astearteetan 8,30etan; edo izena eman Monte edo Irati tabernan.



Gau-pasa egin ostean, horrela posatu zuten

Puente Genil Club de Polo

Argazkian agertzen direnek hartu zuten parte, joan den asteburuan,


ekipoa: Pello, Alex, Rafa, Iban, Jon Mikel, Enrike eta Lazaro, argazkian agertzen ez denak.

Eibarko "Escuela de Armerfa" antolatutako futbitoko 24 orduko maratoian. Lehenengo partidua ostiralean, gaueko 1etan jokatu zuten, eta azkena larunbatean, eguerdiko 12etan. Azkenean Puente Genilak, 36 talderen artean, 3. postua lortu zuen. Finalerdia Ermuako batzuen kontra galdu zuten. Hona-ko hauek osatu zuten

Atletismoa: hiru urrezko eta brontzeskoa

Anoetan izandako Gipuzkoako Txapelketa absolutoan Arrasateko taldeak urrezko hiru, eta brontzesko domina bat eskuratu zituen.

— Juan Carlos Martín-ek urrezkoa lortu zuen 400 m. hesietan, 56.6 denbora bateaz. Marka honekin Arrasateko errekorra gainditu du.



Alonsok oso kondizio txarretan entrenatzen du

— José Antonio Gay-k urrezkoa 200 m.tan: 21.8.

— Inazio Maizbide-k urrezkoa jabalina jaurtiketan: 55,02.

— Bittor Alonso-k, bere aldetik, brontzesko domina eskuratu zuen pertikan: 4,10 m. Bittor astein behin Donostiara joaten da Inazio Altunarengana entrenatzera, eta lan hau bere fruituak ematen hasi da.

Honetaz gain, Lorenzo Avila laugarren gelditu zen 100 m.koan eta Miguel Sancho zazpigarren. 400 m.tan, Jose Luis Caballero, laugarren. Gure atleten aktuazioa, gero eta hobegoa.

K**abia**

Alzariak

Gipuzkoako Etorbidea 28, Tfnoa: 79 27 70 ARRASATE

KIROLDEGI

Jatetxea

Eguneko menua

eta

karta

Musakola Auzoa. 79 82 31

podiuma

**Fernando Zufiria,
Arrasate Atletiko Taldearen
entrenatzailea**

Fernando 13 urterekin sartu zen atletismoaren munduan eta, atleta txarra izan arren, orain arte jarraitu du giro horretan. Ekipoak garai txarrak izan ditu, baina orain dela bost urtetik hona lan serioa egin da, eta gaur egun indarrean dago, orain dela gutxi 1go kategoriari eutsi diolarik. Lorpen bikaina, taldeak dituen baliabide eta instalazioak kontutan hartuta. Kazetariak zera galdetu didate: "zer gertatzen da Mondragoen horrelako markak egiteko, pistarik eta ezer barik, doping hartzen duzue edo?". Instalazio berriei buruz, hainbeste bider eskatzeaz, nekaztuta daudela esaten du.

Taldean 90en bat federatu dago, eta bost bider astero 30ek entrenatzen dute 19 diziplinatan. Lan honetan Fernando ez dago bakarrik, Manolo Cavero martillista, Unzueta, Elorza eta Inazio Altunaren laguntzak ditu. Entrenamenduetan ez zaio gustatzen pesak gehiegi erabiltzea, eta badauka sekretu bat, azkenean kontatzea lortu dugularik, "Suediatik ekarritako arrastre sistema bat erabiltzen dugu, eta emaitza ikaragarriak ematen digu".

Udako hil hauetan izaten dira atletismo-txapelketa gehienak. Horrela, datorren astean Euskadiko Junior txapelketa izango da, eta lau arrasatearrek gutxienezko markak dituzte parte ahal izateko, "hauetatik hiruk, Caballero, Bittor



"Gorputza golfua da, menperatu egin behar da"

Alonso eta Gayk domina bana ekartzea espero dut". Espainiako txapelketarako gutxienezkoa bakarrik Gayk eta hiru maratoi-lasterkarik: Kabiketa, Zalama, orain leksionatuta dagoena, eta Pagaldaik dute. Beste batzuei, Caballero eta Maizbideri, kasu, gutxi falta zaie. Nabarmenarikoen artean, Gay eta Inazio Maizbide jabalina jaurtikitzaileak ditugu. "Gay-k datorren astean Segovian Objetivo-92 delakoan konpetituko du. 200koetan 21,74 dauka, eta segundoko hamarren bat jeisten badu, Yugoslaviako Europako txapelketarako gutxienezkoa lortuko du. Maizbide hilaren 28an Irlanda, Chipre, Israel, Catalunya eta Euskadin izango den txapelketarako seleksionatu dute".

A.A.T.k aurten 1.300.000ko aurrekontua du, 550.000 pta. A.U.K.EAk subentzionatzen dizkiolarik. "Txarto gabiltza, baina eskerrak Eskola Politeknikoari eta Arrasate Kirolak-i, bestela ez dakit non egongo ginatekeen".

Igeriketa: Unai Txaparrok, urrea

Azpeitian izandako Gipuzkoako Igeriketa Txapelketan Unai Txaparrok urrezko domina lortu zuen bular-igeriketako 50 m.tan: 00.47.34. Marka honekin Euskadiko Txapelketarako partaidetza ziurtatu du. Hau hilaren 24ean izango da Santurtzin. Probetan Saioa Benitez eta Teresa Martín arrasatearrak ere hartu zuten parte, aktuazio bikaina lortuz.

Ziklismoa: Dorleta Gipuzkoako txapelduna infantil mailan

Joan den astean Alejandro Altuna taldearen garaipenaren berri ematen genuen. Ba, oraingoan infantilei tokatu zaie txanda. Erlojuaren kontrako proba Oñatin izan zen, eta 21 talderen artean, Arrasate Kirolak taldea irabazle suertatu zen. 10,8 km.ko ibilbidea 16'58''24'' denbora bateaz egin zuten. Taldea honako hauek osatu zuten: Zigor Arabaolaza, Aitor Llodio, Alberto Roldan, Angel Sanchez eta Aitor Hernandez-ek.


Saskibaloia: Kajoi saria

Larunbatean banatu dira Kajoi sariak. Sari hauek denboraldian izan diren jokalaririk nabarmenenei ematen zaizkie. Senior mailan: Iban Arroabe; Junior mailan: Gerardo Mondragón; Jubeniletan: Cesar Gómez; Kadetetan: Jairo Agirreurreta; Nesken senior mailan: Gema Mancebo; eta Kadeteetan: Marta Saavedra. Plaka berezi bat jaso zuen Txomin Heriz medikuak, taldeari eskeintzen dion laguntzagatik. Sari banaketaren ostean, afaria izan zen. Igandean bigarren gelditu ziren Yurreko txapelketa batean.

Denborapasen soluzioak

Ezetz asmatu

A=72, B=25, D=5, E=256.



EGIDO Ordezko Piezak

Automobilerako ordezko piezak

Legarre Pabiloia. Tfnoa: 79 62 11

Memesa

79 42 22

Fusio hotza: Fusio nuklearraren oinarriak

Azkenengo Martxoaren 23an, Estatu Batuetako Utah unibertsitateko Pons eta Fleischmannek, botela batean Fusio hotza lortu zutela zabaldu zen. Froga honen egiaztasunak munduko zientzilarien artean zalantza ugari sortu dituzenez, ez dugu hemen agertzeko eritzi garbirik. Eztabaida honetan gehiegi sartu gabe, datozen Arrasate Press aleetan, Fusio nuklearra zer den, bere alde onak eta txarrak, prozesua aurrera eramateko dauden eragoziak eta "hotz" horrek zer esan nahi duen azaltzen saiatuko gara.

Gertakizunek garbi utzi duten bezala, Fusio nuklearrak (energia nuklearra deitu ohi dena), nahiz eta energi iturri ahaldua izan, oztopo galantak dakartzan (garestia, arrisku-tua, ondakinak, etab....). Bestalde, Fusio nuklearrak, Fisioa baino emankorragoa izatez gain, ez ditu honek agertzen dituen oztopoak, baina erreakzioa hasteko, energia itzelak erabili behar dira. Fusio hotzak, ostera, hasieran oso energia

txikiak erabiliz, energi iturria eman-korra, merkea, garbia eta ohizko energiek daramaten ekonomia menpekotasunetik kanpo utziko gaituen bidea eskaintzen digu.

Baina, zer da Fusio nuklearra? Atomo "astunago" (masa haundiagoa duena) bat lortzeko bi atomo "arinen" elkartze prozesua da. Erreakzio honek eragiten dituen atomo loturen aldaketak, energia sor dezake. Bestalde, gure gizartean zentral nuklearra oso gaitzesgarri eta famatua egin dituen Fisio nuklearra dugu, atomo astun batetik, beste atomo arinagoak sortzen dituen, alegia.

Fusio erreakzio garrantzitsuenak, elemento kimiko denetatik, nukleo (atomoaren muina) arinenen lotura suposatzen du. Hidrogeno nukleoaren elkarrekin, Helio nukleo bihurtzeko. Erabiltzen diren Hidrogeno atomoak ez dira arrunte-nak, astunenak baizik (Deuterio eta Tritio isotopoak). Ondorioz, bi Deuterio nukleoak (bi neutroi eta protoi

bat) elkartzen direnean, Helio-4 nukleo (bi neutroi eta bi protoi) bat sortzen da, azken nukleo hau, une batean zatitzen delarik, neutroiak askatzen diren bitartean.

Bi deuterio nukleoaren masa, lortu-tako Helio nukleoaren masa baino haundiagoa da; beraz, prozesu honetan masa zatiki bat energi bihurtzen da. Horrela lortutako energia ikaragarria izan daiteke: ur litro baten dauden Hidrogeno nukleo guztien fusioa lortuko bagenu, miloi bat litro petroleo erretzen sortuko zen energia baino gehiago lortuko genuke.

Izadian dugun Hidrogeno erre-serbak ia agortezinak direnez (uretan Oxigenoarekin loturik adibidez), fusioak energi gai bezala agertzen digun etorkizuna emankorra da. Dena den, eta datorren alean agertuko dugun bezala, nahiz eta Fusio nuklearrak alde onak izan, Fusio erreakzioa burutzea oso zaila da.

Iñaki Aranburu

AHIZKE-CIM Koop. E.

ACEIG-FECEiko kidea

Cambridge Unibertsitateko PETeko
Batzorde Antolatzaileko Kidea


Alemana
Frantsesa
Ingelesa

89 - 90 Ikasturtea
Matrikula
epea
zabalik

Bulego

Ordutegia:

4etatik 8etara



Loramendi 7, Tfnoa: 79 01 32

ARRASATE PRESS astero zuekin



ERAÑA

AHOLKULARITZA

OROTARAKO ASEGURUAK

Kontzeziño kalea 4 - behea

Tfnoa: 79 83 95


ARRASATE

FAMILI ETA GIZARTE-HEZIKETARAKO ZENTRUAK

INFORMAZIOA: 3,30etatik 7etara

Sta. Teresa 12, Tfnoa: 79 04 59

Erdiko kale 79 19 37



Ferrerías 79 87 62

Dylan zaharra Donostian



Hemen dugu Bob Dylan, azkenik. Bearanduegi, agian. Ez da, da-goeneko, 60. eta 70. hamarkadetan belaunaldi berrien bozeramaile bilakatu zen kantaria. Egungo beraren lanak ez du ordukoaren eraginik ez eta, zenbaiten ustetan, ordukoaren baliorik. Baina mitoak mito dira, eta beraien hurbiltasunak oraindik sortzen du nolabaiteko zirrara.

Laster batean beteko ditu Dylane-
nek 50 urte, horietatik ia 30 musikari
eskainiak. Baina beraren musikagintza
ez da bakarrik luzea, mardula ere
bada, eta aldakuntza sakonez josia.
Musikaren arlo gehienak jorratu
ditu, folk tradizionala hasieran, gero
elektrikoagoa, "country-a" ere bai,
eta azkenik rock indartsua, gospel
eta funkuz kutsatua. Edukiak ere oso
aldakorrek izan dira. Politikoak ha-
sieran, lirikoak geroago, ilunak on-
doren eta mesianikoak azken aldera.

Izan ere, Dylan musikari bezain
poeta haundia izan bait da. Berak
idatzitako kantuen hitzetan aurki
daitezke musikaren munduan sortu
diren pasarterik eder eta esangura-
tsuenak. Dylane-
nek eman zion musi-
kari lehen aldiz maila literarioa.
Baina, aldi berean, beraren belaunal-
diko gazteen arazoak, kezak eta
egonezinak ere isladatu zituen. 60.
hamarkadan, USAko gazteak gogor
aritu ziren borrokan, indar nuklea-
raren aurka, arrazismoaren aurka,

Vietnamgo gerraren aurka edo sis-
tema kapitalistaren aurka. Eta bo-
rroka horietan Dylan ere muturrean
ibili zen, lider bilakatu zen eta be-
arren itzala Europaraino iritsi zen.
Guzti hau, ziur aski, beraren nahia-
ren kontra. Agian horregatik jo zuen
berehala beste bide batzuetatik.
Dylanen ihardueran nabariak izan
bait dira inoren morroi ez bilakatzeko
egin dituen ahaleginak.

Egungo Dylanen lana beste kon-
tu bat litzateke. Lanean dihardu, bai,
eta maiz kaleratzen ditu disko be-
rriak, baina ez du lortzen arrakasta
berezik. Musika ona egiten du
oraindik, baina ez da jada lehen izan
zen aparteko musikaria.

Agian beranduegi datorkigu
Dylan Donostiara. Berak iragarri
bezala, "The times" (garaiak, sa-
soiak, aroak ???) aldatu egin dira.
Dena den, mitoak mito dira. Eta
Dylan zaharra oraindik zirrara sor-
tzeke gai izango da, ziur.

Mikel Irizar



**KONTRATAK
OROKORREAN**



Foruen Enparantza 1, Tfnoa: 79 21 61 Fax: 796432 ARRASATE

“Egipe”n lebatza saltsan prestatzen



San Juan jaiak gainean ditugula eta egun horietako errezeta apropos baten bila ibili gara. Eta zer hobea lebatz eder bat baino.

Santamaina auzoko “Egipe” el-kartera jo dugu orangoan, Bittoria-no Agirre “Bizkai”k zelan presta-tzen duen jakitera.

Bere egunean aldizkari honek ezagutzera eman zuen bezala, irrati kate ezagun batek antolatutako lehiaketan, sukaldari honek hartu zuen parte Arrasateko elkartearen or-

dezkarri moduan.

Han aurkeztutako platera lebatza saltsan izan zen. Hona hemen, or-duan egindako lebatzaren errezeta.

Osagaiak:

- 3 kiloko lebatza
- 5 bat berakatz ale
- Oliba olio, 0,8^okoa
- Zainzuri-ura
- Gatza

3 kiloko lebatzetik 4-5 tajada ateratzen dira. Gaietik gatza bota eta baztertu saltsa prestatzen haste-ko.

Tartera baten olioaren erretzen jarri 3-4 berakatz alerekin. Aleok gorritzen hasten direnean, olioaren sutatik apartatu, bestela olio hori galdu egiten da eta. Berakatz aleak oliotatik atera eta olioaren hozten utzi.

Saltsa egin eta sendatzeko, zainzuri-ura erabiliko dugu. Zenbat

eta ur gehiago orduan eta sendoago.

Hozten utzi dugun olioari zainzuri-ura gehitu eta batidu. Sendatutakoan perrejila eta berakatz ale bat xehe-xehe eginda bota.

Berotzen jarri su motelean eta bertara legtz tajadak bota.

10en bat minutu daramanean eman buelta. Ez da komeni gehiegi egin dadin, bestela desegin egiten da eta. Bestekaldera jartzen dugunean gainetik perrejil apur bat bota eta saltsa bitartetxoetan gatz pittin bat.

20 bat minutu edukiko dugu alde honetaren.

Guzti hau sosegus sosegus eta mimo handiarekin egin behar da.

Eduki kontuan bestalde, elkar-teetako suak indartsuagoak direla etxeetakoak baino eta etxean denbo-ra gehiago behar izango dela norma-lean.

Morokil Taldea



IRAKASLE ESKOLA

AURREINSKRIPZIO-EPEA

1989-1990 ikasturterako izena emateko epea ekainak 1-ean zabaltzen da.

Informazioa: Irakasle Eskola
Eskoriatza (Gipuzkoa)
Tfnoa: 79 04 40

I
R
A
T
I

Ferrerias kalea
Tfnoa: 79 71 80

ANDERE

Bainu eta
sukaldeko
ALTZARIAK

*Sukaldeko altzariek neurria egin eta ezarri.

*Lehen mailako elektratresnak sukaldearekiko itxuratuak eta neurria ezartzekoak.

*Egituraketa proiektuak konpromesurik gabe.


*Diseinu altzarietan trebatuak gara.

Erakusketa: Erdiko kale 52, Tfnoa: 79 83 77 ARRASATE



Kontzesiño 2, Tfnoa: 79 14 06

Apurtzen diren hezurrak



Orain dela aste batzuk esaten genuenez, 65 urtetik gorakoen populazioa gehituz doa gure artean, ia biztanlegoaren %10a suposatzen duelarik. Eta adin aurreratu horietan agertzen diren gaitzak, orain dela urte batzuk gutxi agertzen baziren, gaur egun maiz ikusten direla esan nahi du horrek.

Ez du esan nahi gaitz hauek berez gehitu egin direnik, gaixotasun jakin horiek jasan ditzaketen pertsonak -hau da, adin nagusietakoak- gehitu egin direla baizik.

Zoritxarrez, osasun-zerbitzuak ez dira egokitu egoera berri honetara, ez prebentzio arloan ezta sendakuntza aldetik ere. Arlo soziala, kulturala, denbora libre edo aisialdiari dagokiona ere ez dira aldatu.

Gure gizartea ez dago prestatutrik adineko jende hau behar bezala zaintzeko. Parkinson eta Alzheimer gaitzak, osteoporosia... oso gutxi ikusten baziren orain dela urte batzuk, gaur egun gero eta gehiago ematen dira.

Osteoporosia hezuraren dekalzifikazioa da, gaitz kezagarria gure artean bere maiztasun handi-erengatik.

65 urtetik gorako pertsonen hiritik bat osteoporotiko izatera bideratua dago. Batez ere, menopausia igaro duten emakumeen kasuetan, %50era hel daiteke arazo honen eragina.

Aldaka apurtzen dutenen artean %90 osteoporosia duten pertsonak izaten dira.

Behar-beharrezkoa da guzti honetatik prebentzio eraginkorra eta benetakoa egitea; honetarako, elikadura orekatua eta egokia, eta ariketa erregularra oinarritzko baldintzak dira. Eta jakina, neurri hauek garaiz hartu behar dira, urte batzuk aurretik hasita prebentzio bezala, behin gaitza agertu ondoren, neurri hauen eraginkortasuna asko gutxitzen bait da.

Beraz, badakizue zer egin "Hirugarren adin"era hezurrak behar bezala dituzuela heldu nahi baduzue, hezurrak apurtzeko arriskua baztertuta; guzti honek beti ondorio txarrak izaten bait ditu, eta kasu batzuetan, heriotza ekarri ere bai.

*Eukeni Olabarrieta
Arantxa Lizaso*

**Hau
zer den
jakitea nahi
ba duzu
etor zaitez
gurera**

ERESI

Otalora kalea Tfnoa: 79 29 09 ARRASATE

LAMIAK

Arrasate Pasealekua, 2, behea
Tfnoa: 79 72 63

IBARRA Garajea S.A

garajea
Automobil-
konponketa
Garabi zerbitzua

**EBRO
NISSAN**

Azeri kalea, 5 Tfnoa: 79 12 61
ARRASATE

MIREN

APAINDEGIA

Zarugalde 23, 2. Ezk.
Tfnoa : 79 96 90 ARRASATE

Ekaitz

GOSARIAK

Goizeko 7etatik zabalik,
astelehenetik ostiralera
Otalora, z/g.
Tfnoa: 79 37 76

Abenturari buruzko hitzaldi zikloa



Ekainak 20, Asteartea:
MARRUEKOS BIZIKLETAZ

Ekainak 27, Asteartea:
**650 Km. SKIEZ GROELANDIA
ZEHARKATZEKO**

Ordua: 7etan. Monterronen

ITALIARA Gazteentzako Kultur Bidaia

Uztairaren 1etik 12ra

BUS-LITERAN

Prezioa: 16.900 Pta.

Izenemateak:

Arrasateko Udaleko Gazteria Zerbitzuan

*(Museo eta kultur ikuskizunetarako Udalaren
dirulaguntzaz.)*

BASABE JATETXEA

Menu eta afariak
Boda eta banketeak

Industrialdea

ARETXABAETA

PAZI-OLA SA

Zaldizpe kalea, 2
Tfnoa 79 29 94
ARRASATE

**ERAIKUNTZAK
ETA
BERRIZTAPENAK**

BENGOA


Arkarazo Auzoa z/g Tfnoa: 79 21 76 Aretxabaleta

ITSASKI

arrandegia
arrain freskoa
eta jaki izoztuak

Uribe Auzoa
Arrasate. 79 98 94

DENDARABA



MERKATAL ZENTRUA

Paz, Postas eta Independencia kalea Tfnoa: 26 79 83 GASTEIZ

PROMOCIONES MARKULETE, S.A.

NABE INDUSTRIALEN

SALMENTA

Mendi-Etxebarrin

445 m² tatik aurrera sarbide zabalarekin

*Plantartekoa eta zubi-garaia, aukeran.


*Xafla bikoitz eta isolamenduzko estalkia

*Zerbitzuak: Saneamendua, telefonia, energia elektrikoa eta edateko ura.

Informazioa eta salmenta: Tfnoak: Gasteiz 28 67 60

27 79 60

Arrasate 79 97 95



LIZARRALDE

KIROLAK

**Deba Garaiko
txirrindularien
denda**

Zure denda

San Lorenzo 1 Tfnoa: 78 29 86 OÑATI

ETXEBIZITZAK

- Atikoarekin komunikatuta dagoen etxebizitza salgai. Hall-a, saloi-jangela, sukaldea, 4 gela, 2 bainugela, Atiko handia bainu eta guzti, 2 garage eta trasteleku-plaza, ur beroa eta berokuntza zentrala. Interesatuak dei 79 39 81 telefonora.
- **Merkatala lokala salgai.** Prezio interesgarria. Tfnoa: 79 65 78 arratsaldeko 5etatik 8,30etara. (Asteartetik Ostiralera)
- **Zigarrolan etxebizitza amueblatua salgai.** Tfnoa: 79 08 69
- **Arrasaten etxebizitza salgai.** 3 gela, hall-a, sukaldea, bainugela: 70m². Trastelekua: 15m². Interesatuak dei 79 85 39 telefonora.
- **Alokatzeko pisu bila.** Tfnoa: 55 33 20 (Antonio)
- **Ikasleak pisu bila.** Interesatuak dei 55 14 43 telefonora
- **Donostian, Antiguu inguruan, pisua alokairuan** Uztaile, Abuztu eta Irailean. Saloia, bainugela eta telefonoa. Eguzki begira, dena kanpokaldera. Interesatuak dei 79 14 69 telefonora
- **Pisua salgai.** Telefonoak: 79 81 23 eta 79 63 84 Aretxabaleta (Puerta Sol)
- **Altamiran garaje-plaza salgai.** Tfnoa: 79 38 20
- **Pisua alokairuan behar dugu** Irailetik aurrera. Interesatuak deitu 76 30 01 eta 79 90 36 telefonoetara.
- **Urbe Auzoan pisua salgai.** Gambara eta garajearekin. Deitu 6etatik aurrera 79 49 66 telefonora.
- **Donostian pisua alokatzen da** uztaila eta abuztuaren. Prazio interesgarria. Tfnoa: 64 33 39

LANA

- **Institutu Politeknikoa, Injeneru Teknikoen Unibertsitate-Eskola.** Arrasate. Plantilan sartzea eskaintzen dugu:
 - * Injeneru Industrialak
 - * Injeneru teknikoak
 - * Ingeles filologian lizentziatua, EGArekin.
 - * Fisikan lizentziatua
 - * Gorputz kezakuntzako irakasleak
 - * Teknikari espezializatuak
- Ekainaren 19a baino lehen idatziz bidali Curriculum, 23 postakutxara. 20.500 Arrasate
- **Emakume batek etxeko lanak egin eta umeak zainduko lituzke.** Informazio gehiagorako dei 79 51 05 telefonora. (Ana)
 - **Bi neska Abuztuaren lan egiteko prest.** Interesak deitu 79 49 63
 - **Etxeko lanak egiteko eta umeak zaintzeko neska behar dugu** Gazteizen (ahal dela Euskalduna). Orduetgia: goizeko 8etatik arratsaldeko 6etara. Tfnoa: 945/23 03 30.
 - **Etxeko lanak egiteko edo eskailerak garbitzeko neska heldua prest.** Egunero lana egiteko, arratsaldeko 4 etatik aurrera. Tfnoa: 79 80 92.
 - **Bi ume zaintzeko eta etxeko lanak egiteko neska behar dugu.** Tfnoa: 79 62 82. Arratsaldeko 7,30etatik aurrera.

DENETARIK

- **Hots, kondairazaleok!** Orain dela bi hilabete Parrokiaren artxibotik eraman zituzten Parrokiari buruzko datu historiko eta apunte garrantzitsuak itzuli lehenbailehen, mesedez. Material hau eraman zutenak ETEO edo Eskoriatzako Irakasle Eskolako ikasleak zirelakoan nago. Joxemari. 79 13 20.

SALEROSKETAK

- **Motorra, haundixe, zaharra bada bez ez dutzo importa.** Merke badauketzu erosiko neuke. Tfnoa: 79 88 23.
- **Hozkailua eta garbigailua behar dira** lehenbailehen, merkeak badira hobeto. Tfnoa: 79 88 23.
- **Mexikoko hamakak, Indiako zeta eta zillarrezko bitxiak** (tobillerak, koilarak...) saltzen ditut. Interesatuak dei 79 15 54 telefonora. Aintzane.
- **Paseozko bizikleta saltzen dut,** 5 pinoi, 2 plater eta argifokua. 20.000 pta. Interesatuak dei 79 71 64 telefonora. Juanlu. (lanorduetan)
- **2 hilabetetako bi txakurkume eme erregalaten ditut.** Aita Ardi-txakur euskalduna, eta ama Coolie. Oso politak. Tfnoa: 55 78 00. Joxe Javier. (9etatik 3retara)
- **Micro Genie V-60 organo elektronikoa**. 49 notako teklatura - 8 abots polifoniko - erritmo kontrola - efektuak - nota melodiakoak eta musika laguntza, etbar... Saldu nahi nuke. Interesatuak dei 79 33 35 telefonora 8etatik aurrera.
- **Erabilitako senar-emazteen gela salgai.** Tfnoak: 79 48 92 eta 79 51 50.
- **Egongela salgai.** Deitu arratsaldeko 7etatik aurrera 79 58 02 telefonora.
- **YAMAHA XJ 650 c.c BI-8727-AD KRAUSER** maletakin salgai. Dei gaueko 10etatik aurrera 79 80 88 telefonora. Santi.
- **Puch Condor III motorra salgai.** Tfnoa: 79 87 72 (arratsaldeko 7etatik 9etara)

† ARRASATEN HILDAKOAK

Rafaela Orobengoa Zeziaga,
83 urte. Ekainaren 6an

Nicolasa Madinabeitia,
86 urte. Ekainaren 9an

Vega Pesos Salazar
74 urte. Ekainaren 10ean

Felisa Leibar Sologaitoa
88 urte. Ekainaren 12an

ORRIALDE HONETAKO IRAGARKIAK DEBALDEKOAK DIRA. TESTUA IDATZI ETA BIDALI GURE BULEGOETARA

TESTUA:.....

.....

.....

.....

.....

.....


.....

.....

.....

Zeharkale estalla 1,1b 20.500 ARRASATE Tfnoa: 79 71 64

Famauen ahotik



“...“Victory”, Trafalgarreko batallan ibilitekue...”

JOXE BIAIN:

**Azkeneko barkue eitten
15 hillabete pasau jittuat**

BARKU KOTIZAUEK

“Halako barku bat eiteko piezak 40.000pta. balixo juek, bañe ikusitte nak Donostien esposiziño baten 950.000pta. eskeini eta saltzeik gure ez”

Joxe Biain

Txiki-txikittetik dibujorako afiziñue

Txikitten 4, 5 urte ein nittuan eskolan eta dibujorako naukan afiziño haundixe.

Maixue horreaz konturetute jauan eta beste danak errekreora bioldutekuen, dibujue ipintten jutzan. Ni hantxe gustora.

Maixuorrek esaten jutzan, esateko amai dibujuen sartzeko. Amoi konbentziru eta apuntau nitzuan.

Hasi aurretik gerriek urten juan eta akabo dibujoi.

Gero Gau-Eskolan ibili nitzuan, bañe “Elman fundiziñuen” gogor ein bier lana eta itxi ein nutzan eskoliorri.

18 urteaz lehenengo barkue

Eskolara juateik ez naixuan izen, bañe afiziñue betik geraketan dok. Abioiek, maketak, kastilluek... danetik eindde naukan eta 18 urteaz hasi nitzuan 1go barkue eitten. Piezakin batera, zelan ein biher dan, esplikaziño guztie ekarten juek, in-

gles, italiano, aleman,...Nik interpreteik etxaukat eta dibujotik ein bier, buruz planue jarraituaz.

Barku famauek eindde

Bai, “San Felipe”, “Charles Morgan” eta azkena “Victory” Trafalgarreko Batallan ibilitekue.

Barku konpletuek, benetakuek moruen eindde,euren barandau, eskillera, sukalde eta gañetiko guztiekin. Beittute bakarrik imaginau be ezin, zenbat lan dauken halako batek. Kañoiek, ero noberak ein ezin leikien beste piezan bat kendute gañetikue listoietan jatok eta dana kontu haundixekin landu bier ezeten dok, ahalik eta gehixen aprobe txauaz. Halako barkuendako piezaik hemen ez dok topetan. azkena Madrillen erosi naixuan, bañe italia nuak dittuk.

Azkeneko “Victory” hau eitten 15 hillabete inguru emungo nittuan eta 4, 7, eta 11 ordu be askotan sartute. Gañera halaxen jarraitu bier, bestela hotzittu ezkeru betiko jarein.

Estepan Plazaola eta Jesus Mari Garai

Zelebrequerixak

Badoiaz ama bat eta alaba bat medikuarena, ta.

— Zein da problemia ba? —Medikuak

— Ba beittu, gabetan batzutan miña bezela hasten da igotzen, gero eta gorago, ixa bururaño — esan zotzan alabiak.

— A bai e, pasau hona eta soñe-kua kendu.

— Ez ez, ni enaiz, nere ama da.

— A bueno, bale bale. Aber, ahua zabaldu mesedez.

Sergio Corominas (Antzuola)

■ ■ ■ ■ ■

Despistau famia beste batzuk pe badaukagu, baiña munduko despistaurik haundiña Plazentzian bizi zan. Ohittura hau ei zeukan hartuta: gabero gabero, lotaratu aurretik, ohia zabaltze ei zeban, gero bentanara urten eta handik begira zigarrua erre patxaraz patxaraz. Akabautakuan, zigarro-mutxikiña erre-kara bota eta ohera eitten zeban salto buruz behera eta lo seko gelditze zan. Egun baten zabaltzen dau ohia, urtetzen dau bentanara, erretzen dau zigarroa... botatzen dau zigarro-mutxikiña ohera eta salto buruz behera erre-kara. Holaxe hil ei zan munduko despistaturik haundiña.

■ ■ ■ ■ ■

— Ni beti izan nok ibiltari ona. Behin hirurogei kilometro dzanga dzanga ibili nintzuan neregaittik gaizki esaka zebillen bati muturreko batzuk emutera joateko.

— Eta bueltia be oiñez egin heban?

— Ez, kamillan.


“Eztenkadak”etik moldatua

Juan Martin Elexpuru

Eroski Kontsumatzaileen Komitea

Informazioa eta Formazioa.

Gure bulegoa: Uribe Auzoko Eroski dendan



JESUS ELKORO

BIDEO - KLUBA

Tfnoa: 791886 ARRASATE



Udaletxea

Orainxe eraberritzen diharduten harlanduzko Udaletxe dotore hau XVIII. mendearen bigarren erdialdiko obra dugu. Martin Karrera arkitekto beasaindarraren zuzendaritzapean ekin zitzaion lanari 1756an eta burutu hamar urte beranduago. Harria Galarrako harrobitik ekarri zen, baina armarría eta moldurak egiteko Agurain aldera jo zuten materiale bila. Armarría arkitektoaren semeak (Manuel Martinek) landu zuen; balkoiak eta bestelako burdina-lanak, berriz, Rafael Ame-

zola elorrioarrak. Herria zorpean geratu zen, jakina, eta gastu ikaragarri haiek nolabait estaltzeko, zerga berezi bat ezartzeko eskubidea lortu zuen Kontsejuak: hamar urtez ardo-azunbreari lau marai gehiago eranstekoa, alegia. Beraz, neurri batetan herriko zurruteroak izan ziren obra garesti haiek ordaindu zituztenak. Plaza erdiko kiosko pinpirin hori, aldiz, ez zen luzaroan tente egon: 1911an jaso eta 1953ko Ekainaren 8an bota zuten, orain elizaren atzekaldeari itsatsita dagoena eraikitzean, hain zuzen. *Jerardo Elortza*

—*Fotozahar sariketa*—
Herriko plazan obrak dau-
denez, non izango dira aurten
S. Juanetako dantzaldiak?

—*Joan den asteko irabazlea*—
Miren Bengoa, arrasatearra.
("Trena 1968an kendu zuten")

Egundoko Walk-mana
-VIGURI Bideo Klubak emana-
eskuratu nahi baduzu,
aste honetan bertan
postala bidali gure helbidera,
erantzuna emanez eta zure adina adieraziz:
Zeharkale estalia 1,1.b Arrasate



...eta gainera

VIGURIk

ITT **NOKIA**

hilaren bukaeran

14'ko koloretako

markako **TELEBISTA BAT**

zozkatuko du hileko parte hartzaile guztien artean

Iturriotz 33.eta Zerkaosteta 24. Arrasate



EUSKARAZKO KLASEAK MATRIKULA ZABALIK

ERDU-AEK euskaltegian
UZTAILEAN ikastaro intentsiboak
emango ditu.

MATRIKULA EPEA:
Ekainaren 22ra arte

KLASEAK MAILA GUZTIETAN.
Goizez eta arratsaldez.
5 ORDU egunean.

INFORMAZIOA:

Erdiko kale, 28-1. edo 79 71 12 Tfnoa.

ARRASATE

Barrenkale, 18-1. edo 76 54 11 Tfnoa.

BERGARA

POSTGRADUATUENTZAKO BEKAK



ENPRESA-IHARDUERA BERRIEN BULTZATZAILEEN PRESTAKUNTZARAKO ZENTRUA

Beka programaren edukia:

*Teknika-Enpresa alor guztietan, prestakuntza

* Bere osotasunean, enpresa berri baten prestakuntza

**ZIENTZI, INJINERUTZA, EKONOMI ETA ENPRESETAKO
POSTGRADUENTZAKO DEIALDI IREKIA**

Bekaren zenbatekoa: 1.000.000 pta.
Deialdia itxiko da: 1989ko Ekainaren 27an

Interesatuak helbide honetara idatzi:

Armin Isasti

Zentruko Zuzendaria

-23 apartatua- 20.500 ARRASATE

Kurrikuluma erantsi, zeure asmoak azalduz

Zentru Bultzatzailea: ESKOLA POLITEKNIKOA. ARRASATE

MIGELITORI ESAN BEHAR

Beti ere harri berberarekin topo egiten. Ez ote dago inor lasaia, ziuerra, errurik gabekoa?

Dominatzailea.

Mister Perfect.

Egoera guztietan jaun eta jabe.

Askotan, gehienetan, ezetz iruditzen zait. Señor perfecto nonbait ongi izkutatzen da kasurik onenean jarrita. Egia esan nik behintzat ez dut oraindik nere bidean aurkitu.

Hor, nere aurrean.

Eta gustatuko litzaidake ezagutzea, aurpegiz-aurpegi berarekin egotea. Ze aukera. Monsieur le perfect eta ni elkarrekin.

Bai.

Galdera pila bat jaurtiko nizkizuke, gizon-dena-dakiena.

Galdera mordoxka bat.

Ez dakit zuek. Nik behintzat sarritan bolada txarrak jasaten ditut. Nolatan esplikatu bestela egun horiek, etxera heldu eta denak piper t'erdí baino gutxio balio izaten duenean.

Egun motelak, ilunak.

Guztia melankoliaren kapaz estalia.

Egun euritsuak.

Ez zait zilegi iruditzen. Tristura azken finean triste suertatzen da, luzea, aspergarria. Monotoniaren dantza, jira-bira ereoan murgiltzen da.

Ez dakit zuek

Ez dakit.

Beti ere harri berbera bidearen erdian.

Gaur goizen, esnatzerakoan, Maie faltan bota dut. Dirudien ez da etxera etorri lo egitera. Noski.

Atzo gauean esan zidanez afari bat zuen, Gasteizen, laneko hiruzpalau kolegekin.

Maie eta bere lagunak ezagututa, ziur tragotan hasi zirela parte zaharrean. Gero, burua bero-bero, azken orduko diskotekaren batetan beste tiporen batekin enroilatuko zelakoan nago.

Irteterakoan mutilaren etxera, zuzen ohera.

Hain da emanzipatua Maie!

Libertinajearen defendatzaile amorratua.

Ni hemen, hamabitatik bere zai.

Laurak aldean, nekauta, loak hartu ninduen.

Gosari beroa bakarka prestatu behar, ze deprimentea.

Askotan, la ostia duk, lagunak ez dira inondik azaltzen gehien behar izaten dituzunean. Auskalo non sartzen diren.

Gainera ze demontres, seguraski ni neu ere hala eskakeatzen naiz besteek arazoak dituztenean.

Kopon

Ekin gauzek gaizki ateratzeari, eta denak gaizki.

Esaidazu.

Esaidazu zuk, gizon-dena-dakiena.

Nola esplikatuko diot orain Migelitori, nik, bere aitak, jada ez duela Amátxo Maie maite?

Jon Andueza

J. ROBERTO GUERRA DERMATOLOGOIA

**Azal, ile eta atzazalaren gaixotasunak
Azaletiko alergia**

Lagun Aro—Orotako Medikuntza Kirurgikoa—Asisa—Adeslas—Previsa—Ipresa

Kontsultak arratsaldetan

Otalora Lizenziatua 29, 2. esk. Tfnoa: 79 80 80 ARRASATE



Fotokopiak
Enkuadernazioak
Planoen erreproduzioa
Offseta
Ferrerías, 23
ARRASATE Tfnoa: 79 46 62

■ **Hemen eta munduan:** Ikusgarria "Etor dakiekena" izenaz erakutsi ziguten erreportaiak. New Yorkeko zenbait auzo pobretan, droga eta delikuentzia mundutik oso hurbil dabilzan gazteak bide horretatik urrutzeko, martxan jarri duten programaren berri eman zitzaigun. Gazteak bertako presondegi batera eramán zituzten, taldeka. Gartzelako atea zeharkatuz bat, barruan egin zituzten sei orduetan atxilotuei bezalako tratua eta bazkaria eman zitzaizkien. Barruan, hainbat preso izugarrik, oso era gordinean, presondegiko bizimodu latzaren berri eman zieten. Ez dut programa horren eraginkortasunaren berririk, baina biharamunean inork ez zuen gogo izpirik ere azaldu kobazulo hartara itzultzeko. Erreportaiaren arduraduna, Oskar Epelde arrasatearra.

■ **Ulgor euskalduntzeko egitasmoaz, irrastian.** Kanpoan ere hasi zaio merezi duen garrantzia ematen aurreko alean erreportaiak eskaini genion gaiari, Ulgor euskalduntzeko egitasmoari, alegia. Joan den ostegunean, Loiolako Herri Irratian horretaz ari izan ziren gonbidatuak -Mikel Lezamiz, Fagorreko arduraduna, Nati Abasolo, Udal Euskaltegiko zuzendaria, Junkal Txurruka, irakaslea eta Xabier Elortza, HABEko ikuskatzailea- Lazaro Azkunek arratsaldeko sei-tan zuzentzen duen irratsaioan. Hurrengo ikasle batekin joateko gonbitea luzatu zien azpeitiarrak, "hori da eta emaitzak neurtzeko frogarik onena". Ea ba, noiz den hurrengo hori.

■ **Irratietako publizitate instituzionala.** Kanpaina-egun hauetan bi iragarki bitxi entzun ditut irrati-z. Eusko Trenbideena (Topoz) bata eta Jaurlaritzarena bigarrena. Biak gizonezkoen ahots sendo eta ederrez osotuak, lehen kolpean behintzat, ondo eginak. Biek zuten, hala ere, zerbait arraro, susmagarria. Ematen zuen ez batak eta ez besteak ez zutela ulertzen irakurtzen zutena. Ahoskatzeko modua, leku desegokietan egindako pausaldiek... horrelako zerbait salatzen zuten.

■ **Loiolako Herri Irratiak irratsaio bereziak San Juanetarako.** Hiru izango dira Loiolakoek Mondragoetik, San Juanak direla medio, egingo dituzten irratsaioak. Ekainaren 17an, Udaletxe berrian. San Juan egunean Udalpen eta 26an Zaldibarko pilotalekutik, zuzenean. Arrasateko elkarte, talde, koadrilla eta jende ezagun ugari pasatuko da Alberto Gorritibearen mikrofonoaren aurrean.

Joxe Aranzabal




gusto baduzu

■ **Farenheit,** ostiralean, 22,30etan. Bernardo Atxaga, Espainiako Literatur Sariaren azken irabazlea, estudioan izango da. Gainera, Xabi Otero argazkilariaz erreportaiak ikusteko aukera izango duzue.

■ **Boxeoa,** ostiralean, 23,45etan, Las Vegas-eko Cesar Palacetik, Ray Sugar Leonar eta Thomas Heams-en arteko borroka, Superertainen Txapelketa lehian. Komentarioak: Pedro M. Goikoetxea. Egunero, 4,30ak inguruan, "Eibar-ko Bizikleta" Itzuliaren etaparen amaiera zuzenean. Eta 9etan, egunekoaren laburpena.

■ "Spanish affair" (1957), igandean, 15,25etan. Zuzendaria: Don Siegel. Antzezleak: Richard Kiley, Carmen Sevilla, Jose Guardiola. Arkitekto amerikarra, Madrilera heldu berria, bere itzultzaileaz maitemintzen da. Harreman honen ondorioz, gizonak neskaren maitalea jasan beharko du.

bideoak



Rocky IV: Lehenengoagatik Oscarra eman zioten eta honez gero lau filme egin dizkigu, dirudienez amaierarik ez duen komiki pertsonaia honen abenturekin.

Silvester Stallonek ikaragarriko ospea eta dirua lortu zuen filme hauekin. Laugarren honetan Rocky Sobiet Batasunera doakigu, Drago boxeolari izugarriari aurre egitera. Rockyzaileoi gustatuko zaizue.

OSTADAR IRRATIA

(102 F.M)

Ostirala

3,30 eta 8,30 Errota-zahar (Ipuinak)
4 eta 8,30 Batutakin (Musika klasi-koa)





Azteazkena

4 eta 8 Xiru-liru-li (Haur kantak)

Osteguna

1 eta 8 Irratia-gelan (Gelako grabaketak).

Ezetz asmatu



(Soluzioak 19. orrialdean)

Mokordo

Horoskopoa



ARIES
Martxoaren 21etik
Apirilaren 20ra

Joan zen hilean egindakoaren fruituak jasozten hasiko zara, pozazen pozez sentituko zarelarik. Kasu honetan itxoiteak emaitza onak eman dizkizu, baina ez zaitez ohitu.



TAURUS
Apirilaren 21etik
Maiatzaren 20ra

Bat bukatu gabe, beste batean sartu zara. Zergatik ez duzu atsedenditxo bat hartzen? Ia Udaran gaude eta Udaberriaz ez duzu oraindik gozatu.



GEMINI
Maiatzaren 21etik
Ekainaren 20ra

Dena dela, amodiozko arazoak direla eta, garai honetan aspertu eta nekatuta zabilta. Irtenbiderik aurkitzen ez badiozu egoera honi, estresatuta bukatuko duzu.



CANCER
Ekainaren 22tik
Uztailaren 22ra

Ez utzi etxekoei zure eginkizunetan sartzan edo dituzun plan hauek okertu egingo dira. Momentu honetan nahi duzuna oso garbi daukazu, bai eta lortzeko behar dena ere.




LEO
Uztailaren 23tik
Abuztuaren 23ra

Nahiz eta joan den astean hartutako erabakia martxan jarri, ez pentsa dena orain arte bezala joango denik. Hemendik aurrera gauzak ez zaizkizu hain ondo aterako.. Dena den, lasai ibili.



VIRGO
Abuztuaren 24etik
Irailaren 23ra

Mugimendu haundiko astea datorriz. Egunak konturatu gabe pasatuko zaizkizu eta espero ez zenuen roilo batetan sartuta aurkituko zara. Ez zaitez larritu, atsegina gertatuko zaizu eta.



LIBRA
Irailaren 24etik
Urriaren 23ra

Beti bezala berandu xamar zabilta. Gertatu zaizunaren errua ez diozu inorri bota behar. Zure akatsa izan da eta hurrengoan erne ibili, ez zaizu gauza bera gertatuko eta.



SCORPIO
Urriaren 24etik
Azaroaren 22ra

Datorren asteburuan lagun berri bat ezagutzeko aukera izango duzu. Ez dizu ezer onik ekarriko, baina primeran pasatuko duzu asteburu hori, ahaztezina izango da.



SAGITARIUS
Azaroaren 23tik
Abenduaren 21era

Gai horri buelta gehiegi eman diozu baina irtenbide agokirik aurkitu ez. Egin ahal duzun onena ezer ez egitea da. Aurrerago konturatuko zara planteamendu hori ez zela batere zuzena.




CAPRICORN
Abenduaren 22tik
Urtarrilaren 20ra

Ez zaude guzti hori aurrera eramateko prest, baina laguntza aurkitzea ez zaizu erreza gertatuko. Dena den, ez dago dena batera egin beharrik eta garrantzitsuena zer den argi duzu.



AQUARIUS
Urtarrilaren 21etik
Otsailaren 19ra

Lagunekin daramazun portaera aldatu beharko zenuke, ez zara oso ondo portatzen kuadrilakoekin eta haiek konturatzen ari dira. Saia zaitez atsegina goa izaten.



PISCIS
Otsailaren 20tik
Martxoaren 20ra

Horrela jarraituz gero, San Juanetarako jota egongo zara. Badakizu indartsua zarela baina gehiegikeriek ez dizute inolako mesederik egingen. Lasaitu egin beharko zinateke.

Euskararen erabilpena udaletxean

Euskararen erabilpen idatzia indartsu ari da azken urteotan zabaltzen gure udaletxean, kuadroetan ikus daitekeen bezala. Lehen kuadroan (Sarrerak) udaletxean aurkeztu diren idazkien hizkuntz erabilpena jasotzen da. Bigarren kuadroan (Irteerak) udalak berak zein hizkuntzatan bidaltzen dituen idazkiak. Hirugarren kuadroan gobernu-batzordeak ikusitako gaien hizkuntz aukera eta laugarrenean plenoan ikusi diren gaiena.

1

URTEA	EUSKARA	ELEBID.	GAZTELAN.	GUZT.
	%	%	%	%
1985	3,11	9,14	87,75	100,00
1986	4,28	16,63	79,09	100,00
1987	7,71	15,51	76,76	100,00
1988	10,51	12,36	77,13	100,00

3


URTEA	EUSKARA	ELEBID.	GAZTELAN.	GUZT.
	%	%	%	%
1986	0,09	2,32	97,59	100,00
1987	5,78	0,85	93,36	100,00
1988	21,16	---	78,84	100,00

2

URTEA	EUSKARA	ELEBID.	GAZTELAN.	GUZT.
	%	%	%	%
1985	1,19	13,02	85,79	100,00
1986	3,80	17,47	78,73	100,00
1987	9,68	14,58	75,74	100,00
1988	41,26	10,93	47,82	100,00

4

URTEA	EUSKARA	ELEBID.	GAZTELAN.	GUZT.
	%	%	%	%
1986	0,00	22,78	77,22	100,00
1987	20,00	23,33	56,66	100,00
1988	17,72	30,38	51,90	100,00



FAGOR 

i K E R

**SUKALDE
LILURAGARRIAK**

ARRASATE

Bainugela-erakusketa: Zarugalde kalea 52, Tfnoa: 79 99 42
Sukalde-erakusketa: Udala Plaza z/g, Tfnoa: 79 00 42